


JOXE MARI LERTXUNDI

---

# Sorlekuaren kezka



S397

GAS-128/78



# Sorlekuaren kezka

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

JOXE MARI LERTXUNDI

---



Sorlekuaren  
kezka

---

Auspoa Liburutegia  
(1994)

© SENDOA ARGITALDARIA

Aurre-inprimaketa: EGIA, S.A.L., Donostia

Inprimatzale: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-85846-90-7

Legezko Gordailu: S.S. 227/94

# Itzaurrea

---

Joxe Mari Lertxundi Zuloaga bertsolaria Aia-ko Argin baserrian jaio zan, 1932'ko abenduaren 9'an.

Etxean bertan bertsozaletu omen zan, Aita, izan ere, bertso zaar asko zekiana omen zuan, eta bereak kantatzen ere zerbait moldatzen zana. Gero, lagunartean-eta bera ere asi.

Txapelketetan bein baiño geiagotan parte artu du. Aian, adibidez, 1963-an erriko bertsolari-entzat antolatu zan norgeiagokan. Amaika lagun aurkeztu ziran, eta txapela Lertxundik etxeratu.

Urrengo urtean, 1964-an, Euskal-Erri osoko txapelketaren kanporaketak izan ziran. Lertxundik Zarautzen, Eibarren eta Tolosan kantatu zuan. Tolosako au Gipuzkoako finala zan, eta Lazkao-txiki zanak irabazi zuan txapela, bigarrena Txomin Garmendia geldituz.

Aiako errian, 1988 urtean, beste txapelketa egin zan, bertsolariak bertakoak edo Aiarekin muga egiten duten errietakoak izatekotan. Erri oiek onako auek dira: Asteasu, Errezil, Zestoa, Aizarnazabal, Getaria, Zarautz, Orío, Usurbil eta Zizurkil. Lertxundik irabazi zuan, eta bai bera eta bai aiar guziak pozez gelditu, txapela erbestera joan etzanean.

Euskal-Erri txapelketan parte artu zuan 1989 urtean; bai Gipuzkoakoan ere 1991-n, bietan azken aurreraiño iritxiz. Eta 1993-ko Euskal-Erriko txapelketan ere kantatu du.

Baiña bertsoak paperean jartzea izan da beti Lertxundiren egitekorik nagusiena. Saillik zaarre-

na, guk ezagutzen ditugunetan, 1955-koa du. Ogei ta bi urte zituan orduan. Arantzazura gogojardunetara joan eta ondoren sei bertso jarri oroipengarriztat. Bertso-paperen batzuk ere agertu zituan gero, Zarauzko *Elustondo* moldiztegian. Urrena, berriz, egunkari eta aldizkarietaz baliatu da bere bertsoak argitara emateko: *Aranzazu*, *Zeruko Argia*, *Goiz-Argi* eta batez ere *El Diario Vasco*.

Ala, Lertxundiren bertsoak bildu eta liburu bat atera zuan *Auspoa*-k 1983 urtean, *Baso tarteko oiua* izenarekin, liburutegi orren 167-garren zenbakia osatuz. Bertsozale jendeak arrera ona egin zion.

Urrena, berriz, prosa idazteari ekin zion, langintza berri ortan bertsogintzan bezin trebe eta iaioa dala azalduz. Jaioterriko kontu zaarrez osatutako liburu mamitsua eskeiñi zigun 1991-n, *Igaroari begira* izenarekin.

Baiña bertso jartzeari bein ere ez dio utzi. Ala, azken urte auetan moldatukoak bildurik, bere bigarren bertso-liburua agertzen digu gaurko ontan.

Bertsogintza jatorra eta klasikoa da Lertxundirena. Euskal-Erriak izan dituan bertso-jartzailerik onenak ezagutzen ditu: Xenpelar, Bilintx, Txirrita eta abar, leengo zaarretan; eta Basarri, Uztapide, Xalbador, Lasarte eta abar, berak ezagutu dituanetan. Maixu onak oiek, eta ikasle ernea gure Joxe Mari.

Bukatzeko, eskaera bat egingo genioke berari: aurrera ere bere lumari paper gaiñean gogotik dantza araz dezaiola, bai bertsogintzan eta bai prosazko idazlanetan, gure erri-literaturaren mesedetarako izango da eta.

A. Z.





*Aia.*

# Ezbearren urtea

(1985)

---

1 Milla bederatzireun  
larogei ta lauan,  
ezbearra ugari  
izan da munduan.  
Azken onaren uste  
osoa genduan,  
lengo guztiak lengo,  
zer zan abenduan?

2 Igaro dan urtea  
latza zan benetan,  
batez ere kamioz  
blai ezbearretan.  
Urrutira jun gabe,  
inguruan bertan  
orrela illa erruz  
da urte orretan.

3 Orain kontatu gabe  
beste atzerriak,  
naiko jipoia izan  
du gure erriak:  
zaurituak eunka ta  
ito ta erriak;  
gutxitzen joan bitez  
olako berriak.

4 Jun dan urte ortako  
gauzak ikusita,  
neroni ere nago  
bildurtzen asita.  
Eriotza nunaitan  
esiak autsita,  
sendi tartean ere  
egin dit bixita.

5 Alaxe izanikan  
Jainkoaren naia,  
traktoreakin il zait  
andrea anaia.  
Gabon egunez zuan  
ark bere amaia,  
aurtengo aparria  
ez gendun alaia.

6 Gabon egunean zan  
ezbearrez illa,  
Jesus Aurra etorri  
nunbait bere billa.  
Eduki naiko zuan  
beregana urbilla,  
betiko Gabonetan  
gozatu dedilla.

1 Milla beatzireun larogei eta  
aurten bostgarren urtea,  
Garagarrillan ogei ta seia  
guretzat pozez betea.  
Gerta zitzaigun bazkaldutzero  
Donostiraiño joatea,  
Aldanondoneko jatetxean  
ura jan da edatea!  
Zein bildu giñan bertso batzutan  
nai det berri ematea.

2 *El Diario Vasco*-k bidali  
zigun etxera gonbita,  
bertsoak jartzen jardun giñanak  
joateko danok bazkaita.  
Gu amar lagun bildu giñaden  
Jaungoikoak ala naita,  
ta Jesus Lete etzan bakarrik  
emaztea ere baita,  
egunkariko bi zuzendari  
ta Basarri danen aita.

3 Olea, Salaberria, Lete,  
Arriola, Zinkunegi,  
Kalonje, Manterola, Aierbe,  
Arrieta ta Lertxundi,  
Leteren emazte Mari Karmen  
ongi etorria bedi,  
egunkariko zuzendariak  
Erentxun eta Otegi,  
irakasle ta aita bezela  
gure Iñaki Eizmendi.

4 Aldanondonen ordubietan  
bildu giñan alkarrena,  
ta bi argazki ateratzea  
egin ziguten aurrena.  
Maiean jarri eta bazkaltzen  
eraso giñun urrena,  
jan eta edan aukerakotik  
bapo beteaz barrena,  
nere denboran igaro detan  
egunikan ederrena.

5 Taldera bildu gabeak aurten  
Matxain da Patxi Barbero,  
zoriondu nai nituzke biak  
jakin azterik balego.  
*Diario* ta Basarrirentzat  
nik eskerrak bero-bero,  
eskaritxo bat egin nai diot  
ontara naizen ezkerok:  
aurten asi dan billera ori  
jarraitzea urteero.

# Elurteko eizeta

(1985)

---

1 Ogei urte neuzkala  
nik zerbait pasata,  
elurtea izan zan  
emen galanta.  
Zibillak elurteko  
etsai zirala-ta,  
eizera irten aurretik  
nituen zelata.  
Bildurak lagata  
nintzan atera ta,  
xendalaien planta,  
juizio palta;  
gorriak pasa nitun  
ori zala-ta.

2 Zelata egitean  
inguru danera,  
artzai bat ikusitzen  
zan urrunera.  
Eizean nenbillela  
ikustean bera,  
eman nion guardi-  
zibillan tankera.  
Orduan gain-bera  
zan nere joera,  
erbian antzera,  
azkar gordetzera;  
azkenik sartu nintzan  
borda batera.

3 Bordara sartutzean  
estu eta presa,  
belauniko jarrita  
nuen erreza:  
“Aita San Antonio,  
arren kendu beza,  
atzetikan datorren  
txakur kordobesa.  
Zigorrikan eza  
lortu al baneza,  
dozena bat meza  
da nere promesa”.  
Bestela libratzia  
etzan erreza.

4 Borda zarra nuala  
nere babesgarri,  
zirritutik begira  
an nengon larri.  
Bat-batean burura  
zitzaidan etorri:  
“Artzaia izan eta  
etziot igarri”.  
Ta elduaz orri  
auxen nion sarri:  
“Zertan diat korri  
nere kaltegarri?”  
Ala ere patxaran  
ni ezin jarri.

5 Len erdi negarrean  
ta gero par-irriz,  
San Antoniok egin  
zidan mirariz.  
Ta berriro basora  
ollagor-inbiriz,  
baiñan artean nengon  
ni dardara aundiz.  
Aitortzeko egiz  
nengon otoitz-premiz,  
santuen letaniz  
ekin nion berriz:  
“Santa Maria eta  
*ora pro nobis*”.

6 Basoan nijoala  
erdi bildurrean,  
Kamio basarritik  
oso urrean,  
ollagor bat ikusi  
nuan nik lurrean,  
bertara tira nion  
obe bearrean.  
Altxa indarrean,  
sasoi ederrean,  
ni bere aurrean  
erdi negarrean;  
eskerrak gelditu zan  
ur-baztarrean.



7 Nola etzan aldendu  
oso urrutira,  
berriz urbildu nintzan  
zegen tokira.  
Altxa zitzaidan eta  
nik bi tiro tira,  
nere aurrean eman  
zizkidan bi jira.  
Ni ari begira,  
nai nuen segira:  
“Urrerengon sikira  
ilko det geldira”.  
Azkenean sartu zan  
arte azpira.

8 Ni urreratu nintzan  
poliki-poliki,  
ta ollagorra antxe  
zegen ederki.  
Nere artean nion  
trebe ta ausarki:  
“Merezitako ori  
izango dek aurki”.  
Bertan erabaki,  
gero etzan jaiki,  
dardar ta aitzaki,  
naiz kosta galanki.  
Une au eiztariak  
zer dan badaki.

9 Asera txarra baiñan  
gero ura potra:  
ollagor eta aate,  
danetik bota.  
Gero etxeruntz ekin  
arturik eiz-sorta;  
gaua eta elurra,  
danak nere kontra.  
Ain nengon egota,  
bi anketan *gota*,  
bidean iñor ta  
ni ezin igo ta,  
etxera eldu nintzan  
ziaro jota.

10 Elurteko eizeta  
uraxe lenengo,  
eta seguru asko  
zan azkenengo.  
Alako elurtean  
ni berriz banengo,  
igesika ez nuke  
zaiñikan etengo.  
Ango edo emengo  
zalantzan balego,  
nik lengoak lengo  
zin egin det sendo:  
eizera ez naizela  
geio ertengo.

1 Ekaitz-tankeran eraso zion  
apirillaren amarrak,  
jolas-gogoak kendu zizkigun  
larunbat illunabarrak;  
trumoia jo ta ondorenean  
aizea ta kazkabarrak,  
bapo aztuta bageunden ere  
astindu zitun baztarrak.

2 Igande-goizez etzan agertu  
egualdi gozo, berua,  
atze-erriko piztiak onuntz  
ura joera erua!  
Egabera ta antzarrarekin  
estalirikan zerua,  
argi ta garbi ikusitzen zan  
bazetorrela negua.

3 Astelenean asi zan berriz  
ain zital eta betizu,  
elurra gutxi naiz eta egin  
sartu zigun naiko izu.  
Esaten zuan: "Ni txikia naiz,  
baiña zuk ondo dakizu  
anai aundia nola datorren;  
nik egiten det abisu".

4 Negu-tankera eman niola  
zerbait esan nuan aurrez,  
amairua ta asteartea  
jarri ninduten beldurrez.  
Giroa ere jarria zegon  
artarakoxe adurrez,  
illuntzerako itsasoraiño  
zuritu zuan elurrez.

5 Bideen berri ematen zuten  
sarri asko irratiak,  
kamio asko itxiak eta  
beste batzutan katiak.  
Bizibideak estutzen dira  
itxi ezkerero atiak,  
aundiak dira elurte batek  
ekartzen ditun kaltiak.

6 Luzatzen diran elurte oiek  
danak dira aspergarrik,  
estutzen ditu kaleak eta  
askoz geiago basarrik.  
Mendiko ardi ta abereak,  
eztago esan bearrik;  
poztutzen ditu *eski*-zaleak  
ta eiztariak bakarrik.

7 Elurra eta otzarengatik  
zenbat betiko lurpean?  
Kalte aundiak kale, basarri  
eta artzaien artean.  
Pikardi asko gertatutzen da  
onelako elurtean,  
nik etsiko det ikusi gabe  
beste amar bat urtean.

8 Astelenean elur pixka bat  
izan genduan aurrena,  
jendeak zion: "Asi ta utsa;  
au da gauzik okerrena".  
Elurra deika: "Senideetan  
neroni naiz kaxkarrena;  
gogorragoa etorriko da  
atzetikan datorrena".

# Zer da itxasoa?

(1986)

---

1 Itxasoa da ur gazi pilla  
bildurik dagon putzua,  
bere sabelen garbitutzen du  
lurretik doan kutsua.  
Arrai ta beste jakiz betea,  
ez utsa edo antzua,  
barea eta motela bezin  
zakarra ta bulartsua,  
arria ondar biurtzen duan  
ainbesteko indartsua.

2 Lur antzeko da itxas azpia:  
sakon, zelai eta malda;  
eta gauza bat txit aberatsa  
itxas-belar edo *alga*.  
Arraiak berriz millaka mota  
ainbat neurri edo galga,  
mota bakoitzak osatutzen du  
berebiziko samalda,  
itxasoaren izate ori  
arrigarria ez al da?

3 Itxas barrura zikin jaurtitzen  
mundutar geienak gabiltz,  
jakintsu batzuk gai oni buruz  
sarritan egin dute itz.  
Arazo orren ondorioak  
zer diran agertzen dabiltz,  
itxaso zikiñetikan datoz  
ainbat ondamen da gaitz,  
bizia galdurikan legoke  
bera ustelduko balitz.

4 Itxas-baztarrak garbitzen ditu  
olatuena erasoak,  
ainbat ondartzat bihurturik  
jolastoki erosoak.  
Ainbeste jendeak ortxen pasatzen  
dituzte opor osoak,  
zar eta gazte bertan artuaz  
ain busti-aldi gozoak,  
amaika gauza ematen dio  
gizonari itxasoak.

5 Lautatik iru itxasoa da  
ludia edo mundua,  
amar bat milla metrora dauka  
sakonenean ondua.  
Aitz eta ondar azpi-oiñarri,  
orixe du zimendua;  
une batzutan estu, axala,  
bestetan zabal, sendua;  
gizon askori bizia emana,  
beste askori kendua.

6 Itxasoaren izate ori  
da gauza berdingabea,  
urte guztian gelditu gabe  
igo ta jetxi marea.  
Batzutan zakar bildurgarria,  
bestetan bare-barea,  
bere kolkoan bazkatzen ditu  
txitxardiña ta balea,  
aundia dala aitortu bear  
itxasoaren Jabea.

7 Putzu zar orren sabel-barrua  
ikusiko bagenduke,  
arritu eta aozabalka  
danok utziko giñuke.  
Edo-ta beste alde batera  
nik auxe esango nuke:  
gizonen batek bere aztarna  
emango baldin baluke,  
oraindaiñoko gauzik aundiña  
ezagutuko genduke.

8 Gai oni buruz zerbait agertzen  
bertsoen bidez naiz mintza,  
onaren billa saiatze ori  
baita guztion langintza.  
Itxaso orrek erabakitzen  
baitu lurreko bizitza,  
alde batera zoriona da  
ta bestera zorigaitza,  
orren bitartez mugitzen baita  
etorkizunaren giltza.



# Joxe Mari Azkarateri

(1986)

---

1 Artzai, arrantzaleak  
ta basarritarrak,  
ikasi gabekoak  
asko lengo zarrak;  
ala ere baziran  
izketan azkarrak,  
jendea gozatzeko  
etziraden txarrak.

2 Gizon oietako bat,  
esan detan trazan,  
gerra-ondorenean  
Aian ere bazan;  
nazioko Estadutzaz  
bein erriko plazan  
jendea gozatzeko  
moduan mintza zan.

3 Joxe Mari izena,  
Azkaratekoa,  
Altzola deitzen zaion  
auzo batekoa;  
bere ateraldi bat  
gai xelebrea  
orain bertso auetan  
det esatekoa.

4 Gerra-ondoren ura  
txarra zan danentzat,  
baiña guztiz gogorra  
basarritarrentzat:  
laboreen erdiak  
Estaduarentzat;  
ori zan mingarria  
Azkaraterentzat.

5 Bein batez ekartzean  
gurdika bat gari,  
ala zien inguru  
zeuzkan lagunari:  
“Estaduk kentzen ziguk  
garia ugari,  
ezagutuko nitek  
zein dan gizon ori”.

6 Gure basarritarra  
lasaitutzen etzan,  
geroz ta beroago  
esan eta esan;  
aren erretolika  
entzutekoa zan,  
ez baizun arrastorik  
Estadua zer zan.

7 Orduan Estaduak  
urtero-urtero  
eramaten zituan  
ainbeste jenero;  
argatik Joxe Mari  
mintzatu zan bero:  
“Orrek bapo jango dik  
guk egin ezkeru”.

8 Azkaratek au zion  
jenio beruan:  
“Orrek ai zer bizkarra  
edukiko duan!  
Gazi-kutxan balego  
txerrian moduan,  
ez giñekek goserik  
aurtengo neguan”.

9 Azkarate aserre  
ainbat eramanik,  
etxean ez ote zan  
osatuko janik;  
ark naiz eta ez jakin  
Estadua zanik,  
ondo mintzatu zala  
esango nuke nik.

10 Joxe Mari aserre  
ala egonikan,  
nik ez det uste ortan  
gaizki zegonikan:  
etxean ez bazaio  
osatzen janikan,  
arentzako eztago  
Estadu onikan.

11 Etzan arritzekoa  
Azkaraterena:  
gizona egotea  
onetik irtena;  
Estaduak kentzea  
egindako dena,  
edozeiñentzat ere  
bada naiko pena.

12 Basarritar asko zan  
Joxeren antzeko:  
nekazaritzan jardun  
besteak kentzeko,  
ainbat arto ta gari  
utsean saltzeko,  
gero almazenetan  
alperrik galtzeko.

1 Antxota bukatuta  
atunaren billa,  
gizon da ontzi jun da  
egundoko pilla.  
Antxoaren kostera  
izan dute illa,  
atunetan ohea  
gertatu dedilla.

2 Arrantzan asko Bizkai  
eta Gipuzkuan,  
ortik bizi diranak,  
ta urte askuan.  
Itxasoa jarritzen  
bada ezezkuan,  
askotxoren ogia  
dago arrixkuan.

3 Itxasoan ere gaur  
badira zalantzak,  
ez dira garai baten  
ziran esperantzak.  
Beste danak bezela  
badauzka arrantzak  
arrosa gutxi eta  
ugari arantzak.

4 Arrai-iturri ori  
egin zaigu jetxi,  
lengo toki zabalak  
estutu ta itxi.  
Danentzako ainbeste  
ezin da iritxi,  
gaur arrantzale asko  
eta arrai gutxi.

5 Europa batu ortan  
lege bat jarri zan,  
arraia ugaltzeko  
zerbait komeni zan.  
Lengo askatasunik  
gaur ezin da izan,  
uretan ere estu  
legorreko gisan.

6 Itxasoan mugarik  
len etzan ikusi,  
nunai arrantzan lasai  
danak jo ta autsi!  
Gaur zaintzen asi dira  
kañoi eta guzi,  
au da daneko lege:  
indarra nagusi!

# Zarautzko billera

(1987)

1 Aizu, Iñaki, billera eder bat  
ara guk egin lenguan,  
geroztik nabil gau gozo ura  
burutik ezin kenduan.  
Ezin det esan emengo denok  
zenbat gozatu genduan,  
jakin nai nuken gauza auxen da:  
zuk nola pasa zenduan.

2 Saiatuko naiz bixitagatik  
esker beroak ematen,  
era ortako apalondoak  
ez dira sarri izaten.  
Bertsoen bidez ekingo diot  
pasadizoak esaten,  
guk egindako billeran berri  
guztiak izan dezaten.

3 Gure taldeko oituren berri  
gelditu zera jakiña,  
bertsozalea zu izateak  
eman dit pozik aundiña.  
Bizimoduak emango dizu  
noiznai etorri eziña,  
naiago nuke berriro ere  
inguratuko baziña.

4 Aitortutzen det zure ondoan  
asko gozatu nuena,  
eta taldeko edozein dezu  
ori esaten duena.  
Umore ori zuregatikan  
da, Iñaki Perurena,  
ta umorea izan gureztat  
munduko gauzik onena.

5 Apari goxo bat egin eta  
jarririkan gorri-gorri,  
era ortako bertso-billera  
da euskaldunen jatorri.  
Aurrera ere eutsi deiogun  
daukagun oitura orri,  
eta zu ere billeretara  
alik maizena etorri.

6 Bukatutzera noa, Iñaki,  
pena ematen dit baiña,  
motel samarrak nola dauzkaten  
burua eta mingaiña.  
Eta zu berriz nola zeraden  
bertso jartzaille bikaiña,  
arren mesedez eskatzen dizut  
bialdu auen ordaiña.



# Agur, On Manuel

(1987)

---

- 1 San Inazio bezperan eldu  
zitzaidan berri mingotza:  
euskera eta bertsoen maixu  
aundi baten eriotza.  
Uste gabeen barrura sartu  
zitzaidan ezten zorrotza,  
ta ezten orrek mindutzeraiño  
zulatu zidan biotza.
  
- 2 Irratitikan entzuna nuan  
Aita Manuel il zala,  
eta benetan aitortutzen det  
oso samindu nintzala.  
Zure maitale danon otoitzak  
Jainkoak entzun ditzala,  
eta betiko atsedenetan  
berekina artu zaitzala.
  
- 3 Egintza bidez ikusitzen da  
nolakoa dan gizona,  
eta zuk ere egintzetatik  
artua zendukan sona.  
Euskera eta bertsoei egin  
neurten ezin leiken ona,  
guztien ordez eskertzen zaitut,  
On Manuel Lekuona.

4 Zure illetan lau gotzai ziran,  
eun eta geiago apaiz,  
zure erriko eliz aundia  
gaiñezka euskaldun anaiz.  
Euskalerrian olako illetak  
ez dira gertatutzen maiz,  
neuk joaterik ez nuan izan  
ta penaz gertatutzen naiz.

5 Utzi diguzun eredu ori  
ez ote degu gordeko,  
danon artean bana dezagun  
ipar da egoaldeko?  
Orretarako maixu bat bear  
On Manuelen moldeko,  
bere illobak izan bear du  
osabaren oiñordeko.

6 On Manuelen gogoa zer zan  
dago garbi ikusia:  
euskera eta bertsoa ziran  
bere amets nagusia.  
Argirik ezak galdu lezake  
ark egindako guzia,  
eta, Juan Mari, zuk artu zazu  
osaba zanan zuzia.

# Basarriren omenez

(1987)

---

1 Gai onixe nai diot  
sellu bat ezarri,  
ain sakonik ez baita  
egokitzen sarri,  
danak jakin dezaten,  
kale ta basarri,  
zeiñen gizon aundia  
izan dan Basarri.

2 Orain mende erdi bat  
bertsotan asi zan,  
antzoki ta plazetan  
ta berdin elizan,  
euskeran serbitzuan  
gaur ari dan gisan;  
maixu jatorragorik  
ezta emen izan.

3 Gerra ondoren artan  
Euskadi au zer zan?  
Gaurko askatasunik  
bertsotako etzan.  
Orain bezela dana  
ezin zeiken esan,  
au jartzen det erriak  
garbi jakin dezan.

4 Basarrirentzat ere  
zan lege berdiña,  
sarri ematen zion  
gauza orrek miña.  
Aske mintzatutzeko  
nola etzan diña,  
esbarrutik amaika  
deadar egiña.

5 Bertsotan erriz erri  
garai gogorretan,  
gurdirik etzedukan  
ta beti lorretan.  
Basarri zan itzaia  
lanbide orretan,  
bertsolaritza dago  
berakin zorretan.

6 Basarriren euskera  
garbi, aberatsa,  
txukun jorratu eta  
jarririk baratza,  
kenduaz belar txarra,  
sasi ta arantza;  
frutua jasotzeko  
badet esperantza.

7 Orain begiratuta  
errez ematen du,  
baiña garaiak berak  
garbi esaten du.  
Zure oiñatzetara  
guztiak zuzendu,  
zuzia nork eraman  
zuk utzi bazendu?

8 Zu zera bertsoaren  
oiñarri ta abe,  
naiz bitartean pasa  
amaika naigabe,  
Gaur ez giñan izango  
doai onen jabe,  
len zuk eman zenion  
bultzadarik gabe.

# Jaiotxetik nagusiak bialdu nau

(1987)

- 1 Egun batean zuregan sortu  
nintzan, jaiotxe zarra,  
ortxen lenengo aldiz artua  
nuan amaren bularra.  
Ainbat urtean bertan bizi ta  
daukat aitortu bearra:  
samiña zala agurtutzean  
nik egin nuan negarra.
  
- 2 Errenta zintzo ordaindu arren  
eskatutako guzia,  
etxe-jabeak gu an bizitzen  
zeukan ezin ikusia.  
Arrazoi gabe bialdu gaitu  
—zeiñen gauza itxusia!—,  
jakingo nuke zeiñek nai duan  
orrelako nagusia.
  
- 3 Nagusi ori odoleko det,  
sortuak sendi artetik,  
altzumak jaiotzen diran gisan  
zugaitz-ipurdi batetik.  
An ere aula ezin da irten  
indartsuaren menpetik,  
nik ere zigor ori izan det  
nagusiaren aldetik.

4 Bizi izateko etzan munduan  
neretzat toki berdiñik,  
banitun bertan bizitzarako  
amets goxorik egiñik.  
Orain ortikan bialdu eta  
urrun nagola jakiñik,  
ori guztia gertatutzea  
nago sinistu eziñik.

5 Kabi ori zan bizi guztiko  
neretzat artu nuana,  
beste zerbait zan nagusi jaunak  
nunbait pentsatzen zuana.  
Bizi-poz dana nere barrutik  
betiko daukat juana,  
biotz aundiko gizona ezta  
ori egiten duana.

6 Izkuntza, jolas eta sinismen,  
doai danen oiñarria,  
nortasun dana eman zenidan,  
kabi zar maitagarria.  
Zuk babesturik bizi izan naiz,  
biotzeko basarria,  
orain zugandik aldendutzea  
ez al da negargarria?

7 Ainbat urtean basarri ortan  
lanean izardi ta pats,  
jango banuan igaro nitun  
majiñatxo bat urte latz.  
Bera betiko agurtutzea  
egin zitzaidan txit garratz,  
oroipen-bide izango ditut  
amaika goiz eta arrats.

8 Kabi maitetik atera nintzan  
betiko egun batean,  
azken laztana eman ere bai  
nik atariko atean.  
Eta geroztik arkitutzen naiz  
zuregandik apartean,  
baiñan etzaitut iñoiz aztuko  
bizi naizen bitartean.



1 Ni martxoaren erdi aldera,  
lengo oitura zarrían,  
basorik baso abitu nintzan  
ain giro zoragarrian,  
txori-abesti goxo alaiak  
entzuteko egarrian.  
Untza tartean ezkutaturik  
aritz zar baten gerrian,  
zozo-kabi bat arkitu nuen  
joan dan udaberrian.

2 Oso urrera eraman niñun  
ni ikusmen egarriak,  
baiña zozoak erne eduki  
begi eta belarriak.  
Igesitzera beartu zuen  
nik eman nion larriak,  
eta orduan izan nituen  
une lilluragarriak,  
lau arrautz eder ikusitzean  
bere kabian jarriak.

3 Pentsatu nuen: “Noan emendik,  
zapuztuko da bestela;  
aita ta ama kabi ontara  
inguratu ditezela,  
oien beroaz bere garaian  
umetxoak datozela,  
izadiaren ardatz orretan  
loturik dijoazela,  
sendi berri bat sortu dezaten  
beste guztiak bezela”.

4 Andikan egun batzuetara  
berriz jun nintzan kabira,  
eta zozoa ni ikustean  
laster joan zan sasira.  
Kabia nola ote zegoan  
ni jarritzean begira,  
lengo arrautzak ikusi nitun  
jetxiak lautatik bira,  
nere biotza penaz beteta  
egin nuen erretira.

5 Nik ikustean kabi artatik  
bi arrautza eramanez,  
etxe aldera itzuli nintzan  
tankera txarra emanik,  
nola lapurrik eztan izaten  
batekin gelditzen danik.  
Eta orduan nere artean  
auxen pentsatu nuan nik:  
“Urrengorako ez dek izango  
zozo-kabian aztarnik”.

6 Bixitatzera jun nintzan berriz  
ogei egunen buruan,  
ta irixtean zozokume bat  
kabian ikusi nuan,  
aita ta ama jaten karraio  
an zebiltzan inguruan.  
Galdutzat neukan etxen bizia  
arkitu nuen orduan,  
gertakizun ark pozaren pozez  
negarrez jarri ninduan.

7 Bertso onetan jarri nai ditut  
kabi orren oroipenak,  
gertatutako gauza danari  
egin nairik aitorpenak.  
Baiña munduan egun alaiak  
ez dira izaten denak,  
nik egun artan naiz-ta ekarri  
alako itxaropenak,  
pozaldi arek ondorenean  
ekarri zizkidan penak.

8 Biaramunen zozoa aita  
kantu alai ederretan  
antxe ari zan kabi gaiñeko  
aritzaren adarretan,  
eta ni berriz ari entzuten  
pozezko irriparretan.  
Ta gabiroi bat an agertu zan  
tximistaren sugarretan,  
zozo gaixoa eraman zuen  
beraren atzaparretan.

9 Indartsuaren atzaparretan  
errurik etzuan aula,  
penaren penaz agurtu nuan  
karraxika zijuala.  
Naiz-eta jakin pizti-bizitzak  
lege orixe duala,  
sinistu denok nere artean  
auxe pentsatu nuala:  
naiz aita galdu zozokumea  
amak aziko zuala.

10 Bi egun barru berriz jua nintzan  
zozo-kabi ingurura,  
ta ama ere galdua zala  
erori nintzan kontura.  
Umea ere galdu etzedin  
aita ta amaren modura,  
neuk jasotzea obe ote zan  
jausi zitzaidan burura,  
andik aurrera nik izan nuan  
zozokumean ardura.

11 Aita ta ama bizi baziran  
bertan aziko zan baiña,  
nik jasotzea naiko suerte  
izan zuan alajaiña.  
Etxean jarri nion toki bat  
argia eta apaiña,  
jatena berriz aukerakotik  
ematen nion nai aiña,  
Santiotako azi zitzaigun  
zozo eder ta bikaiña.

12 Iruditurik askatasuna  
txit gogoko zitzaiola,  
egun batean iriki nion  
bera bizi zan kaiola.  
Laster erten zan ta an zebillen  
kantu-otsa zeriola,  
gosetutzean konturatu zan  
an jatenik etzegola,  
lengo txokora itzuli gabe  
ezin bizi zan iñola.

13 Egunsentian ni atarian  
jarri orduko talaian,  
zugaitz gaiñetik bera asten da  
kantu goxo ta alaian,  
ta arkituko balitz bezela  
neri zerbait esan naian.  
Gu eguardian zerbait jateko  
jartzen geranean maian,  
zozoa sukaldera sartzen da  
bazkaldutzeko garaian.

14 Nere biotzan alaitzalle da  
bere kantuzko agurra,  
zugaitz gaiñeko orren mintzoa  
bai goxo eta xamurra.  
Bestetatikan berezia da,  
badu zerbaiten adurra,  
baiña sarritan etorritzen zait  
burutazio makurra:  
ezbearren bat gertatutzea,  
orixen daukat bildurra.

15 Naiz-ta asera izan, zozoa,  
suerterik etzenduna,  
geroztikako bizia dezu  
goxoa eta leguna.  
Berak badaki aurrera ere  
guk maitatuko deguna,  
kezka auxen da gure sendian  
sarritan jartzen dezuna:  
samingarria izango dala  
zu galtzen zeran eguna.

# Guardizibillen igesi

(1987)

1 Zortzi egun lenago,  
erriko festetan,  
gauz xelebrea pasa  
zitzaigun gaztetan:  
guardizibillak jarri  
gurekin kasketan,  
alakorikan etzait  
gertatu bestetan.

2 Erromeri-giroan  
eleiz-arkupean  
mutil gazte talde bat  
antxe jo ta kean.  
Zoriontsu genbiltzan  
gu pake-pakean,  
guardiak etorri  
ziran bitartean.

3 Bi ezkututik sartu,  
bat zetorren bistan,  
guk orduan igesi  
eraso tximistan,  
batzutan zutik eta  
bestetan irristan;  
marka jarriko nuan  
egon banintz pistan.

4 Irurak zigor bana  
eskuan zekarten,  
gozatzeko asmotan  
egurra ematen.  
Gu ere korritzeko  
gertatu aldaten,  
laster gordeak giñan  
artasoro baten.

5 Gu lenago taldean  
bagiñan ugari,  
gero iru besterik  
an etzan agiri:  
nerekin Juanito  
eta Antton Mari,  
jorratu bat ematen  
artasoroari.

6 Arnasa artzen ere  
gu ixil-ixillik,  
orduan ez gendukan  
lengo iskanbillik.  
Baztar danak miatzen  
naiz izan ibillik,  
etzan gu billatzeko  
guardizibillik.

7 Iruron mintzaera  
ain zan tankerako:  
“Saltsa ontatik nola  
gaituk aterako?  
Gu zein geran jakingo  
ditek goizerako,  
laster dek abixua  
kuartelerako”.



8 Gure marmarra etzan,  
ez, oso leguna:  
“Au dek, au, illuntzea  
igaro deguna!”.  
Kontu au zan sarritan  
esaten genduna:  
“Ai, pasea balego  
biarko eguna!”.

9 Sarreran pozik giñan  
arto-tarterako,  
izenpetu ziteken  
illabeterako.  
Gero asperturikan  
ordubeterako,  
buru austen jarrita  
nola aterako.

10 Lenengo pozez sartu  
gu arto tartean,  
gero aspertzen asi  
denbora joatean.  
Erabaki genduen  
alako batean:  
“Emendikan etxera  
abitu gaitean”.

11 Juanito jarri zan  
soroan iskiñan,  
guk korrika eraso  
aren kontraseiñan.  
Ango arto-errenkak  
igaroaz biñan,  
tximista bat bezela  
etxeratu giñan.

12 Urrengo egun ura,  
bildur nuen gisan,  
dana igaro nuan  
berdeen peskizan.  
Ikusirik etzala  
abixurik izan,  
illuntzean pozikan  
oieratu nintzan.

13 Sasoia guk gendukan  
danok aukerako,  
prest jarri nai genduen  
festak asterako.  
Ez dakit zan ongarri  
edo kalterako,  
eskarmentatu giñan  
beste baterako.

14 Gure amets bakarra  
festa jartzekoa,  
guardiak etzuten  
gaizki artzekoa.  
Aiek zuten asmoa  
gu egurtzekoa,  
eskerrak, artasoro  
etxe atzekoa.

15 Berdeakin bildurtu  
giñan artaraiño,  
alako korritzerik,  
jaunak, egundaiño:  
eleizpetik erten da  
artasororaiño,  
azkarrago ezin jun  
orduan gu baiño.

# Loiolako erri-Irratia

(1987)

1 Loiolako irratia,  
mende laurden bat betia,  
zure omenez argatik degu  
aurtengo urtia.  
Len emaitz asko jaurtia,  
aurrerantz geitu zaitia,  
beste gauzikan ez dizut opa,  
irradi maitia.

2 Zu beti gurekin zaude  
eta gu zurekin gaude,  
erri-muiñean sarturikan zu  
goiz ta arratsalde.  
Zure egintzak or daude,  
ta nik egiten det galde:  
Loiolak ainbat nork egin duan  
euskeraren alde.

3 Naiz eta maitekor asi,  
danentzat etzendun grazi,  
zure mintzoak biotz guztiak  
ezin irabazi.  
Aitzaki batzuek nasi,  
geiena gezurra kasi,  
nola edo ala egin ziñuzten  
ixildu arazi.

4 Ixillaldi bat eginda,  
lanari gogor ekinda,  
irikitzea lortu zan berriz  
ortik eraginda.  
Au lortu zuena zein da?  
Ori guretzat berdin da,  
zer premi zegon gure errian  
berak bazekin da.

5 Itxitzean arrituta,  
ainbat jende larrituta,  
maite dan gauzak galtzen danean  
oiek baditu ta.  
Gaizki ala geldituta,  
ta lanean arituta,  
berriz iriki eta gaiñera  
indarberrituta.

6 Batzuen uste apala  
irratia galdu zala,  
baiña berriro lortu egin zan  
nola edo ala,  
ez kaxkar eta argala,  
aundia eta zabala;  
kalte asmotan etzuten egin  
bentaja makala.

7 Irrati ori merio,  
Loiola doai jario,  
danetik dauka orrek: jakintza  
eta erlijio;  
meza ta errosario,  
gaixoentzat alibio,  
besten artean eztu, ez, gutxi  
orrek e balio.

8 Orain arteko modura  
sartu errian barrura,  
beraren argi beti izaten  
zuk izan ardura.  
Ipui, bertso ta oitura,  
murgilduz euskal putzura,  
orixen baita gure erriak  
nai duan kultura.

9 Gure izarra zu zera,  
zurekin giatzen gera,  
aurrera ere argi gaitzazu  
oraingo antzera.  
Ez utzi guri galtzera,  
auxen noa eskatzera:  
Ama Euskera bizi dan arte  
biziko al zera!

# Arantzazuko billera

(1987)

---

1 Milla bederatzireun  
larogei ta zazpi,  
iraillaren ogeian  
ez giñan gu gaizki.  
Arantzazura bildu  
giñan amazapi,  
lagun danak Lertxundik  
gogora dakarzki.

2 An igaro genitun  
unerik onenak,  
alkar besarkatzean  
bildu giñan denak.  
Pozez nengon denboran  
sortu ziran penak,  
oroitu nitunean  
falta ziradenak.

3 Aurten talde bikaiña  
Jaunak ala nai-ta,  
Erentxun jauna ere  
izandua baita.  
Ura nagusi jator  
ta Basarri aita,  
olako bikote bat  
nolatan ez maita?

4 *Diario*-n jarrera  
ez da itxusia,  
gugana juna baitzan  
diru-nagusia.  
Ordainduko zuala  
dago ikusia,  
gugatik Goiko Bentan  
kosta zan guzia.

5 Egunkariko jauna,  
inguratu sarri,  
gu or ibili gabe  
estu eta larri.  
Eskertzen det Erentxun  
ta berdin Basarri,  
urrengo urtean ere  
bazkari bat jarri.

6 Eriotzari diot  
nik bildur itzala,  
gertu izan bainuen  
gaztea nintzala.  
Jainkoak nere naiak  
gaur entzun ditzala:  
urrengo urtean berriz  
alkartu gaitzala.

1 Amaika gauz gertatzen  
da baten bizitzan,  
au besteri entzun da  
arrituko nitzan.  
Dana agertuko det  
egin nuen gisan  
Gabon ederragorik  
ez det inoiz izan.

2 Bizkarrean arturik  
gure Olentzero,  
eskera irten giñan  
sutsu eta bero.  
Alako ondorenik  
ez nuen espero,  
esango det zer gauza  
egin nuen gero.

3 Illuntzean etorri  
nintzan ni etxera,  
sendiko danak bildu  
giñan afaltzera.  
Une batez jun nintzan  
oiaren ertzera  
ta loak artu nindun  
aurtxoen antzera.



4 Eta oiean lotan  
jarri ta segiran,  
amets bat agertu zan  
buruaren jiran.  
Nola amets batzuek  
ain goxoak diran,  
neri zorion dana  
arek eman zidan.

5 Zaar, gazte eta aurtxo  
ain talde zabala,  
mai ondoan bildurik  
oitura bezala,  
esan nuan: “Au amak  
onetsi dezala”.  
Orduan ni oroitu  
bera falta zala.

6 Ikusitzean utsik  
sukaldean silla,  
oroitu nintzan ama  
nola zegon illa.  
Orduan entzun nuan  
dei ixil-ixilla:  
“Abitu zaitez, seme,  
zu amaren billa”.

7 Amaren aulki ura  
utsik arki baizan,  
zalantza txikienik  
nik ez nuan izan;  
ta egan nijoala  
aingeruen gisan,  
jauregi eder baten  
atera jun nitzan.

8 Zuriz jantzitako bat  
an zegon atean,  
“Ama emen ote da?”  
galde egitean,  
“Bai, baiña egon zaitez  
or pixka batean,  
zuretzako jantziak  
ekarri artean”.

9 Atezaiak orrela  
neri itzegiñik,  
banekien etzala  
an sartzen zikiñik.  
Zuriz jazteko nengon  
gogoa egiñik,  
orduan zoriontsu  
nintzala jakiñik.

10 Jantzi zuriz apaindu  
ninduten aurrena,  
orduan esan zidan:  
“Sar zaitez barrena”.  
Atea igaro ta  
gero zetorrena,  
iñoiz ikusi nuen  
leku ederrena.

11 Bi gaztek etorri ta  
eman esku bana,  
ta eraman ninduten  
Nagusiagana.  
Besarkada bero bat  
Ark zidan emana.  
esanaz: “Aspaldian  
zai daukazu ama”.

- 12 Nagusia agurtu  
eta itzultzean,  
ama ikusi nuen  
gelaren ertzean.  
Lasterka juan eta  
lepotik eltzean,  
gaiñezka egin zidan  
pozak biotzean.
- 13 Ta amak esan zidan:  
“Semetxo maitia,  
emen izango dezu  
zorion betia.  
Emengo Gabon jaiak  
betiko baitia,  
nerekin bizitzeko  
gelditu zaitia”.
- 14 Neri barrendik auxe  
zitzaidan atera:  
“Zai dauzkat afaltzeko  
nerekin batera.  
Juan bearra daukat  
aiei esatera,  
arkitu zaitudala  
berri ematera”.
- 15 Amak berriz orduan,  
jarririk begira,  
auxen zuzendu zidan  
biotzan erdira:  
“Ez daukazu zuk zertan  
jetxirik sendira,  
aiek ere gugana  
etorriko dira”.

16 Egaka igo nintzan  
biurturik *mamu*,  
berriz egingo nuke  
nik ori, al banu.  
Gero esnatutzean  
izan nuen damu,  
ai, amets orretan nik  
beti jarrai banu!

# Joxe Aierbe lagunari

(1987)

---

1 Lagun Joxe Aierbe,  
ire albistiak  
ez dituk tristiak:  
aukerakoak dauzka  
bertso ta txistiak.  
Naiz eta lanak eman  
danak sinistiak,  
sariak jaso dituk  
or ziran guztiak,  
txal zazpikian gisan  
utzirik bestiak.

2 Joxe, bertsoak jartzen  
dituk oso errez,  
ona baiiaz eurez;  
nik gauza orren berri  
bazekiat nerez.  
Jai auetan joka zak  
kristau baten legez,  
ik sari danak jaso,  
besteak baterez,  
guri ere eskua  
luzauguk mesedez.

3 Bertso onak egiten  
dituk ik neurrian,  
luze-laburrian,  
eta mamia berriz  
era xamurrian.  
Ni mailla orretara  
ez niok urrian,  
argatik agertzen nauk  
buru makurrian,  
Joxe, auspeztuko nauk  
ni ire aurrian.

4 I jakinduriz gaiñez  
ta gu ozta-ozta,  
or zeukagu koska;  
gurekin oroitzeko  
ni ari nauk oska.  
Orain egunak ere  
ain onak datoz-ta,  
bazkaritxo goxo bat  
naiz-ta asko kosta:  
txanpain frantzes a eta  
emengo langosta.

5 Eskean nekatutzen  
dedala mingaiña,  
esango dek, baiña  
iri kendu nai nitek  
zerbaiten ordaiña.  
Ik ekarri langosta  
eta nik txanpaiña,  
moldatuko diagu  
bazkari bikaiña,  
baiña orretarako  
etorri Laurgaiña.

# Joxe Aierberi, berriz ere

(1988)

1 Joxe Aierbe, iri  
nai nitek otsegin  
ta berriz itzezin,  
irekiko tratua  
ain zaitek atsegin.  
Barkatu bear didak  
nik badet utsegin,  
langosta-gose orrek  
ezin dik aldegin,  
lengoak ez baizidak  
enpatxurik egin.

2 Augatik ez aikela  
igesi juan i,  
eutsi txoko oni,  
ni jardunagatikan  
marmar ta armoni.  
Ire *menuan* aurka  
jartzen nauk neroni,  
sagardo zale iñoiz  
ez nauk izandu ni,  
ta txitxarroa berriz  
etzaidak komeni.

3 Ik eureztat nai dituk  
ire izerdiak  
oso, ez erdiak:  
ez dituk kastatu nai  
billete berdiak.  
, Langostarik ez dakar  
Joxeren gurdiak,  
txanpain edaten benik  
lagun bear diak:  
zazpi botella zeuzkat  
*neberan* gordiak.

4 Esateiat: ni ez nauk  
txitxarro jalia,  
baiña bazkaria  
egiteko su ori  
ez dek itzalia.  
I baldin baintzake  
egazti zalia,  
neronek jarriko dit  
oillasko paria,  
txanpaiña nai ez badek  
*Vega Sicilia*.

5 Joxe, bukatu bear  
diat agurtuta,  
buru makurtuta;  
gauza bat esatera  
niok beartuta:  
beste lagun batzuek  
tarteaz sartuta,  
bazkalduko diagu  
danok alkartuta,  
ta i ere etorri  
andria artuta.



# Izkuntza gaixoa

(1988)

1 Izkuntzagatik Euskalerrian  
degu geure nortasuna,  
seme guztiei banatu die  
Amak bere ontasuna.  
Mintzoan bidez eman deiogun  
Ama orri poztasuna,  
gure erruaz galdu ez dezan  
betirako osasuna.

2 Askotxo dabiltz beste izkuntzak  
nun da nola ikasiko,  
ta oien kontra itzik esaten  
iñolaz ez naiz asiko.  
Gure errian izkuntz arrotza  
jartzen bada lenbiziko,  
“euskalduna naiz” esanarekin  
euskera ez da biziko.

3 Askatasunan zaleak gera,  
aretxen eske gaude gu,  
eta lenbailen ori lortzeko  
egiten det nik erregu.  
Euskera dala danen oiñarri  
sarritan esaten degu,  
askatasunak zer balio du  
izkuntza galtzen badegu?

4 Euskaldun maite, zer gertatzen dan  
konturatutzen al zera?

Sasi-semeak aurrera sartu,  
maiorazkoak atzera,  
Ama Euskera gaixoa berriz  
neskame baten antzera.  
Orrela doa euskaldunaren  
sendi jatorra galtzera.

5 Euskeraz ondo dakiteneri  
zelatan sarritan nago,  
erderaz mintza naiago dute,  
ori ikusia dago.  
Beste izkuntzak geurea baiño  
badituzte maiteago,  
era orretan gure euskera  
indartzerikan eztago.

6 Danok euskeraz mintza gaitezen  
erriko eta mendiko,  
era orretan jarriko degu  
sendo ta indar aundiko.  
Gau illunetik atera eta  
jar zagun egunsentiko,  
ortara asten ezpagera bein  
galtzera doa betiko.

1 Udaberria asi  
giro onenetan,  
jendea pozturikan  
jarri zan benetan.  
Martxoa oso txarra  
azken egunetan,  
orixe gertatzen da  
urte geienetan.

2 Gero eraso zion  
ekaitz mokoteak,  
zer kazkabar zakarrak  
zituan boteak!  
Leioan *kisk* eta *kask*  
nolako boteak!  
Olakoxeak dira  
zozomikoteak.

3 Zozomikoteatzaz  
nai det zerbait mintza,  
norbaitzuk oien galdez  
baldin balebiltza.  
Martxo ta apirilla  
da bien emaitza,  
bi illenak bost egun,  
ta beti ekaitza.

4 Bi illenak bost egun,  
biña ta erdiña,  
tarte ortan sortzen da  
ain giro gordiña:  
martxoak azken txarra  
izateko diña,  
ta apirillak berriz  
asera berdiña.

5 Nik zozomikoteei  
badiet bildurra,  
oriek badaukate  
zerbaiten adurra.  
Trumoia, kazkabarra,  
goietan elurra,  
urtero ematen du  
olako egurra.

6 Zozomikote oiek  
zuzen dijoazte,  
garai ortan giroa  
txartutzen da laiste.  
Oiek asmatzen dute,  
naiz askok ez uste,  
Gorbean aurkitzen dan  
artzaiak ainbeste.

# Bekaizkeri eta zurkeria

(1988)

1 Gizon batzuen pausoak dauzkat gogoan jasoak, besteren gauzez jabetutzeko oien erasoak; izurraturik auzoak, sarritan sendi osoak, olako lanak egiten ditu inbidiosoak.

2 Bekaizkeriaren griñez iñori opa eziñez, emale txarra artzeko beti amorru aundiñez; besteri kalte egiñez bizitzen da atsegiñez, ta iñor ondo ikusten badu beti tripamiñez.

3 Bi gaitz orien mirabe egiñik baldin bazaude, nagusirikan txarrenak daude zure jaun da jabe; morrontza ortatik alde egiten badezu obe, bestela bizi bearko dezu sosegurik gabe.

4 Semerik baldin badezu  
an ere zurkerian zu,  
ezertxo ere opa eziñik  
aziko dituzu;  
ondo gogoan ar zazu,  
azken gorria daukazu:  
zeuk egiñaren ordain saria  
iritxiko zaizu.

5 Inbiriak eragiñik  
zer ote dauzka egiñik?  
Al badin badu, eztu emango  
zor duen ordaiñik.  
Lagun danak aldegiñik,  
bakartu dala jakiñik,  
gelditutzen da bere itzalez  
fiatu eziñik.

6 Gizon zur edo bekaitzak  
beti jota dauzka gaitzak,  
griña txar oien araberako  
dituzte emaitzak,  
ta oietako bakoitzak  
bere erako otoitzak;  
patxara asko eztu izaten  
orien bizitzak.

7 Berdin ezjakin da abil,  
zurkeriz baldin badabil,  
ase ezin dan putzu batean  
egingo du murgil.  
Dana beretzat nai du bil,  
ni uste onekin nabil,  
au egingo du: beartsu bizi  
eta aberats il.

8 Inbiriaren ezpala  
zurkeri gaitoa dala,  
oien azpian dagona erren  
nola edo ala.  
Jendeak esan dezala  
esku zabalak gerala,  
alkar serbituz bizi gaitezen  
gizonak bezala.

# Agur, Lurdes maitea!

(1988)

---

1 Lurdes, zuri agurka  
oraindikan nago,  
eta ni bezelaxe  
beste asko dago.  
Zerua ikusten det  
lendik argiago,  
orain an dagolako  
izar bat geiago.

2 Emen biziko ziñan  
beti buruaustez,  
buka zaizkizu danak  
orain nere ustez.  
Zerura joana zera  
emezortzi urtez,  
gurekin oroitzeko  
eske nago, Lurdes.

3 Lurdes, ni zuri deika  
ementxe naukazu,  
zure sendia miñez  
utzia daukazu.  
Arren, eskari auxe  
zuk entzun eidazu:  
biotz samindu oiek  
gozatu itzazu.



4 Mingarria orrela  
bukatu bearra,  
orrek ekarri zigun  
guztioi negarra.  
Pozteko bear degu  
gauza bat bakarra:  
zure aurpegi ortan  
zegen irriparra.

5 Berri txar ori eman  
zidaten goizean,  
ezten zorrotz bat sartu  
zidan biotzean.  
Geroztik sarri ari  
naiz ni otoitzean,  
negar gogor egiñez  
zutaz oroitzean.

6 Illeta ospatu zan  
Laurgaingo elizan,  
gorputza bertan zala,  
oitura dan gisan.  
Zugandik au esanez  
ni urrundu nintzan:  
“Agur, Lurdes maitea,  
zorientsu izan!”.

# Diru-jaleak (Tragaperras)

(1988)

1 *Diru-jaleak* deitzen  
diet nik euskeraz,  
tabernetan badaude  
gaur nai dan aukeraz.  
Batzuen esperantza  
ortxe dago, beraz,  
beren barrutik diru  
mordo bat ateraz,  
baiña emale txarra  
degu *tragaperras*.

2 Adiskide, etzaitez  
tresna ortaz poztu,  
orrek egingo dizu  
diru danak ostu.  
Bere sakela bete  
ta zurea ustu,  
besterentzako inoiz  
errukirik eztu,  
obe dezu garaian  
joko ori moztu.

3 *Tragaperras*-en jokoz  
ez inor zaletu.  
“Zergatik ez?” norbaitek  
lezake galdetu.  
Geienentzat txarra da,  
ta ezin obetu,  
zer gauz egiten duan  
gaitezen jabetu:  
bat aberasterako  
millaka pobretu.

4 Naiz dala *tragaperras*  
eta berdin *bingo*,  
oiek oso politak  
dira noizik beingo,  
pixka bat jokatuta  
balitz aldegingo.  
Sarri ari danari  
diot itzegingo:  
“Ortik galtza berririk  
ez dezu egingo”.

5 *Diru-jale* tresnetan  
daude ainbat mota,  
eta guztiak berdin  
ditut nik gorrota.  
Batzuen jokabidez  
arritzen nago-ta:  
jornal bat irabazi  
egiñalak jota,  
ta gero diru danak  
makiñari bota.

6 “Etzazute jokatu”  
esaten errez-ta,  
tabernariak egin  
lezake protesta,  
ortik jasotzen baitu  
berak ainbat pezta.  
Guztientzako txarra  
dan gauzarik ezta,  
ortan utzitzen det nik  
*tragaperras* pesta.

# Munduko legea

(1988)

1 Gauza guztiak izaten dute  
oiñarri edo abea,  
ezereza ta utsa jotzen det  
nik gauza oiek gabea.  
Indartsuaren eskua degu  
izadiaren jabea,  
orren bitartez sortzen dana da  
mundu ontako legea.

2 Lege ori da jaun eta jabe  
etxean edo auzoan,  
errialderik aundienean,  
mendian eta basoan.  
Era berean gertatutzen da  
lurrean da itxasoan:  
indartsuena degu nagusi  
gure kondaira osoan.

3 Itxasotikan asiko gera  
bertako berri emanetz,  
ta bakoitzari berea aitortu  
gertatzen dana esanez.  
An ere indartsuen legea,  
benetan gogorra danez,  
era ontantxe bizitzen dira  
aundiak txikia janez.

- 4 Lurrean ere indartsuena  
daukagu jaun eta jabe,  
aulak ez dute ezer egiten  
goikoen baimenik gabe.  
Animalien artean ere  
indartsuak asko daude:  
elefantea aundi ta sendo  
ta bera danen errege.
- 5 Gabiroi batek sarri askotan  
menderatzen du zozoa,  
zozoak ere irintsitzen du  
berdin txitxare gaixoa.  
Txiki guztiak gaiñetik dute  
aundiaren eraso,  
indartsuaren morrontzan dago  
gure izadi osoa.
- 6 Zugaiztiari begiratzean  
kontuan gindezke jausi,  
basoan ere nor dan errege  
garbi liteke ikusi.  
Zugaitz aundiak errubexari  
azpian oi dio eutsi,  
oianak ere lege berdiña:  
indartsuena nagusi.
- 7 Esaten dute: “Aldatzen doa  
munduko gauza guzia”.  
Baiñan lege au lengoa dala  
dago garbi ikusia.  
Izadi orrek bere eskutik  
daramaki justizia:  
indargabeen eriotza da  
indartsuaren bizia.

8 Itxas barruko bizitza ori  
aztertu degu aurrena,  
abere, pizti eta zugaitzak  
jarri ditugu urrena.  
Gizakiaren izatea da  
oraingoan datorrena,  
arrazoidunan itxura ortan  
bera degu okerrena.

9 Arrai, pizti ta abereetan  
lege bat garbi dijua,  
indartsuena dala nagusi  
ori da gauza pijua.  
Gure artean nabaitutzen det  
beste moduko girua:  
abereetan indarra baiña  
giza artean dirua.

10 Itxaso eta baso-bizitzan  
aitortu bear da egiz  
iltzen dutela batak bestea  
bizi izateko premiz.  
Ta gizakiak egiten duna  
auxen da bein eta berriz:  
premiagatik eztu, ez, iltzen;  
gorroto eta inbiriz.

11 Itxaso eta baso-bizitzan  
azterketa bat egiñik,  
indartsuaren legea dala  
gelditu gera jakiñik.  
Giza artean dirua Jainko,  
orrek ez dauka berdiñik,  
beste gauza bat ezta izango  
dirua bezin zikiñik.

12 Giza artean itxura batez  
badago ainbat justizi,  
baiña ordua iritxitzean  
iñun ezin da ikusi.  
Gauza ederrak aitatzen dira  
dotriña ta demokrazi,  
abere gisa gizonak ere  
beti aundia nagusi.

13 Arrai, abere ta piztietan  
indartsuena da juez,  
aundiak dio mendekoari:  
“Ni naiz erregea; zu ez”.  
Gizona sarri arritzen dago  
basa-pizti oien legez,  
oien neurrian gizona jartzen  
oraindik eztago errez.



# Alargunaren negarra

(1988)

Protxu gabea izan ez dedin  
nere bertsoen jarduntza,  
goiko argiak eman deidala  
adimenezko jazkuntza.  
Ezbear latz au argitutzeko  
arkitzen badet laguntza,  
gertatutako gauza nola dan  
ezta asmakizun utsa,  
istripu batek sendi orretan  
egindako aldakuntza.

2 Ez nuke berriz miñik eman nai  
lengo biotz zaurituan,  
baiña gai ontaz bertso jartzeko  
arrazoiak banituan:  
aita ta ama bi aurtxorekin  
maiz ikusten genituan,  
aita maitea betiko galdu  
kamioko istripuan,  
lenago irripartsu ziranak  
negarrez utzi zituan.

3 Pentsa dezagun nolakoa zan  
istripuaren pixua,  
andreak artu zuan unean  
gertatuen abixua.  
Berri txar orrek sartua zion  
berebiziko izua,  
konturatu zan galdu zuala  
bere sendiko maixua,  
gizona il zan baiño lenago  
alargundu zan gaixua.

4 Istriputikan gizona jaso  
gaixozaindegi batera,  
zortzi bat egun naiz ta igaro  
etzan bizirik atera.  
Andre gaixoak zetorrenari  
aurrez emanik tankera,  
zorionetik orra igaro  
itxaso samin batera,  
zer aldakuntzak gertatzen diran  
egun batetik bestera!

5 Lenago naiz ta sendi orretan  
izan bizitza leguna,  
gutziz garratza daukatela gaur  
da ikusitzen deguna.  
Zoritxarraren sorrera ziñan  
ezbearraren eguna,  
ura zalako negar batean  
arkitzen da alarguna,  
arrazoi gabe kendu baitzion  
ain maite zuen laguna.

6 Eriotz beltzak kabi ortara  
bota zuan atzaparra,  
aurtxoei aita eraman zien,  
emazteari senarra.  
Sendi orretan bai sartu zala  
benetako zoritxarra,  
tamalgarri da sasoi orretan  
laguna galdu bearra,  
errukitzeko modukoa da  
alargunaren negarra.

7 Istripu batez gizona galdu  
ez bere andreak naita,  
berriz bizirik ezin ikusi  
naiz eta gogotik maita.  
Ta alarguna bi aurtxorekin  
biltzen danean afaita,  
amarentzako samintasunik  
latzena orduan baita,  
seme-alabak galdetutzean:  
“Noiz etorriko da aita?”.

8 Seme-alabak aitaren galdez  
amagan maiz dijoazte,  
eta amari negar-malkoak  
erortzen zaizkio laste.  
Bizi-pozikan eztu gaizoak  
naiz oraindik izan gazte;  
itxas-ertzean ondar-alerik  
dagoenik ez det uste,  
alargunaren biotz orretan  
arantzak dauden ainbeste.

9 Ezbear batek sendi-giroa  
ori da jota uztia,  
garbi ta eder zegon baratza  
zikindu ta itxustia.  
Alargun maite, gaur alderantziz  
gertatzen zaizu guztia:  
len irriparrez eta alaitsu  
erteten zan eguzkia,  
ta orain berriz ikusten dezu  
malko garratzez bustia.

# Gau-txorien pesta

(1988)

1 Garai batean giñan  
kale ta basarri,  
gure giroko pesta  
alaien egarri.  
Baiña orain dabilta  
estu eta larri,  
danak aldaturikan  
nola diran jarri;  
argatik eman nai det  
gaurko pesten berri.

2 Gaurko pesta-giroak  
ni nau minberatu,  
nere ustetan ezta  
asko aurreratu.  
Gu oi giñan pestatik  
garaiz etxeratu,  
gaur berriz gau erdian  
danak kaleratu;  
orain onena zein dan  
zeuok aukeratu.

3 Gau-txori edo ontzak  
ditut nik gogotan:  
gauetz oiuka dabiltz  
bein baiño geiotan,  
ta egunez berriz lo  
zugaitzen zulotan.  
Gaurko gazteak ere  
berdintsuak ortan:  
gauetz oiu ta jolas  
ta egunez lotan.

4 Gauean asko alai  
eta atsegiñez,  
buruauste ta kezka  
danai aldegiñez.  
Baiñan ondorenean  
naigabe aundiñez,  
zurruta ta lo-paltak  
emandako miñez,  
gaupasaren zauriak  
sendatu eziñez.

5 Gaztediak gaupasa  
dauka atsegiña,  
ortan egiten dute  
oiek alegiña.  
Egun argitatikan  
dabil aldegiña,  
illargia daukate  
beren erregiña,  
oientzat eguzkia  
alperrik egiña.

6 Askok esaten dute:  
“Lana zertarako?”.  
Borondate gutxitxo  
dago ortarako,  
ta beti ametsetan  
oporretarako.  
Geienak ados daude  
gauza ontarako:  
egunez lo egin da  
gauzez pestarako.

# Lotoa amets

(1988)

---

1 Askok ikusten ditut  
lotoa moldatzen,  
ta gero botatzen;  
bestela zailla baita  
dirua sobratzen.  
Amets onekin asten  
dirade jokatzeko,  
ekiteko asmotan  
milloiak kobratzen,  
baiñan oso erreza  
eztago tokatzen.

2 Lotoak nola daukan  
milloien zarata,  
ortarako da-ta,  
engaiñatutzen ditu  
edozein erata.  
Izan ere, dirua,  
ain goxo zera-ta,  
zoriontsu uste guk  
loto aterata,  
gizonak orrelaxe  
egiñak gera ta.



3 Lengo batez neronek,  
Zarautza joanda,  
joka nai nuan-da,  
baiña kiosko artan  
ura zan demanda!  
Berrogeigarrenean  
zan neretzat txanda,  
gutxiñez ordubete  
an zai bear zan-da,  
etxera aldegin nuan  
buelta emanda.

4 Aberasteko askok  
dadukate presa,  
kenduaz pobreza;  
nunbait gauza ona da  
diruan babesa.  
Baiña jokalariak  
sinistatu beza:  
ortik seguru dezu  
dirurikan eza,  
lototik aberasten  
ez baita erreza.

5 Danok bizitzen gera  
diru-ametsetan  
goiz ta arratsetan;  
sartu arazten gaitu  
bide narratsetan.  
Nagusi jartzen bada  
gure biotzetan,  
ez gera ibiliko  
giza-urratsetan;  
bizi bear genduke  
diruan lotsetan.

6 Diru asko txarra da  
naiz eduki sasoi,  
obea da doi-doi.  
Zenbaitek esango dit:  
“Ez dezu arrazoi”.  
Tokatutzen bazaizka  
bati milla milloi,  
baztar danak betean  
urdin eta marroi,  
orduan jarriko da  
diruaren morroi.

# Zarautzko erriari

(1988)

1 Pitxi itxas-ertzekua,  
paradiso antzekua,  
goren maillan jartzekua.  
Toki eder bat iñork nai badu  
lasai atsedentzekua,  
ara berdingabekua  
orretarako lekua:  
Zarautz zorionekua.

2 Eskari auxe Zarautzi:  
euskal oiturik ez autsi,  
naiz izan milla erauntsi.  
Agintariak izkuntzarekin  
ez dute zeregin gutxi;  
seme danai erakutsi,  
orri indarrean eutsi,  
euskera galtzen ez utzi.

3 Zarautz, zuk artu ardura,  
antziñako erri ura  
al dezun dana ingura.  
Izkuntza, jolas, kirola, dantza  
ta emengo milla oitura,  
komeni zaizun modura,  
sartu biotzen barrura;  
ori da erri-kultura.

4 Aia, Orio, Getari  
dituzu zure atari;  
ipar aldera Kantauri.  
Begira orain tontor banatan  
dauden iru ermitari:  
San Martin da Urtetari,  
berdin Santa Barbarari,  
oiek dituzu zaindari.

5 Dauzkazu kale, basarri,  
ondartza bat zoragarri,  
erriaren osagarri.  
Kanpotar askok zuri begira  
esan izan dute sarri:  
bai zerala arrigarri;  
orixen da ezaugarri,  
itz geiago zertan jarri?

6 Komentu, eleiz, jauregi  
ta beste zenbat alderdi,  
kultur-altxorraren kabi.  
Bertsolari ta olerki-maillan  
badaduzkazu izar bi:  
ortxen daude bi irudi,  
erriai egiñez argi:  
Basarri eta Lizardi.

7 Frontoi, Polikiroldegi,  
*Asti-alde*, futbol, rubi,  
tenis-leku, Lauta-mendi.  
Ondartza berriz ostikoketan  
etorkizunan arrobi;  
agurka dezu Kantauri,  
ikusirik alain aundi,  
goraltzak ematen zuri.

8 Naiz eduki zeru-antza,  
badezu arazo latza,  
mingarria ta garratza:  
belar txar batek ia ito du  
gaztediaren baratza;  
agintari jaunak, altza,  
atera orren arantza,  
galdu gabe esperantza.

1 Oillategi bat daukat  
etxetik gertuan,  
jiran sarez itxia  
berreun metruan,  
jakiñik azariak  
olako lekuan  
lanerako gogoa  
nola izaten duan.  
Ta ara: lenguan  
bere zimenduan,  
ain toki senduan,  
zuloa zeguan.  
Azarian susmoa  
egin genduan.

2 Eramanak gutxiñez  
baditu amabi,  
oilloak kontatzean  
ala dirudi.  
Ostutako zuloa  
agiri zan garbi,  
andik egin zezaken  
naikoa pikardi.  
Konturatu bedi:  
ori da geiegi;  
bota diot begi,  
obe du ez segi;  
gero izan lezake  
beranduegi.

3 Mantentzeko asmoak  
daduzka oillotik,  
sartu ta erten dabil  
bere zulotik.  
Orretarako lana  
egin du gogotik,  
ondo jaten du eta  
ez dio inportik.  
Nik nere bototik  
itxi lenengotik  
sartzen bada ortik,  
ala urrengotik  
laoa izango du  
bere lepotik.

4 Lenengo egin nion  
zuloa estali,  
gero ez etortzeko  
deia bidali.  
Baiña alare berriz  
aguro itzuli,  
lapurretako griña  
etzaio itzali.  
“Aizak, i azari,  
konturatu adi:  
nai ezpadek geldi  
lazotik zintzili,  
oillategi orretan  
kontuz ibili!”.

5 Oillo arrapatzea  
nion debekatu,  
esana egitea  
ezta gertatu.  
Geroz ere egin du  
amaika pekatu,  
bere jardunarekin  
ni ere kezkatu.  
Joateko eskatu,  
ezezko prestatu,  
berriz presentatu,  
ezin zan zentzatu;  
ain setatsua zanik  
zeiñek pentsatu?

6 Azari orrek zuan  
lapurretan maiña,  
oilloa eraman du  
nai duan aiña.  
Okela jaten berriz  
txukun da apaiña:  
danak kenduaz luma,  
ezur eta zaiña.  
Esan nion, baiña  
arro alajaiña;  
an zegon ertzaiña,  
zepoak engaiña:  
bizia utzi digu  
oillo ordaiña.



7 Lapurreta zebilkin  
ark pentsamentuan,  
oillategi barruan  
eta kanpuan,  
ezpainañak miaztuaz  
ondo jandakuan,  
baiña beti garaile  
zailla da jokuan.  
Bere karretuan  
zebillen lekuan,  
libre zalakuan,  
erori zepuan;  
larrua utzi zidan  
testamentuan.

8 Badigu eramana  
egaztia pranko,  
okela preskotikan  
bizi zan bapo;  
naiko oilloa jan da  
etzegoan plako,  
galdua da geiegi  
arriska zalako.  
Oillategirako  
ta noranairako,  
lapurretarako,  
lau ta bi ankako  
azaririkan emen  
ezta faltako.

# Gari garbitzeko tornuari

(1988)

1 Garian lanak nola ziran len  
iñork jakin nai balitu,  
lenengo erein ta jaiotzean  
jorratu ta ongarritu;  
eldutakoan ebaki, lotu  
eta metetan zutitu;  
gero jotzean ale ta aukak  
pillan oi ziran gelditu,  
ta azkenean aizedun tresna  
baten bitartez garbitu.

2 Garia garbitutzeko tresnaz  
orain bear det itzegin,  
*tornua* deitzen zitzaion Aian,  
auzo-errietan berdin;  
ta berarekin era onetan  
lana oi ziguten egin:  
batek gaiñetik garia bota,  
besteak eskuz eragin,  
*elize*-aren aizean bidez  
garia garbitu zedin.

3 Gauza auekin gorpuzten ziran  
garbiketako makiñak:  
burnia, txapa eta egurrez  
izaten ziran egiñak;  
gaiñean aska eta azpian  
iru sare ezberdiñak,  
aize-jario jarritzen zuan  
gizonaren eragiñak,  
bi aldetara banatuzeko  
aleak eta zikiñak.

4 Garia jo ta pillan jartzen zan  
baiñan ez mota batetik:  
alea, auka ta galburua,  
an izaten zan danetik;  
gero tornuak bereizten zitun  
bakoitza bere aldetik,  
aizean bidez auka atzera,  
alea bera saretik,  
ta galburuak erortzen ziran  
atze-puntako atetik.

5 Tresna zar orrek astindu zuan  
amaika baba ta gari,  
urtean oso egun gutxitan  
garbiketari oi zan ari:  
ogei bat etxe egindakoan  
utzitzen zion lanari;  
gero garia biurtu zedin  
sendietako janari,  
urrengo lana jartzen zitzaien  
errota ta labeari.

# Bizitzako legea

(1988)

---

1 Amaren izena da  
goxo, atsegiña,  
beratzaz askok dute  
zerbait itzegiña:  
ama dala munduan  
gauzarik aundiña;  
au aztertzen egin nai  
nuke alegiña.

2 Amagatikan zerbait  
esan naian nago:  
txikitan beste ezer  
ez degu naiago;  
askorentzat koska bat  
gero ortxen dago:  
maite du ama, baiña  
beste bat geiago.

3 Nik ama maite nuan  
guztien moduan,  
sasoira eldu nintzan  
beraren onduan;  
baiña bere garaia  
iritxi orduan,  
ezkon-laguna geio  
maitatutzen nuan.

4 Amak egin zuena  
bere amarekin,  
nik ere ori egin  
nuan berarekin;  
bizitza lotua da  
lokarri orrekin:  
eztago izaterik  
beti alkarrekin.

5 Gauzarik aundiena  
aurrentzat da ama,  
garaia etortzean  
aldatzen da dana;  
biotzak jotzen baitu  
beste batengana,  
ori baita Jainkoak  
legetzat emana.

6 Lagunagan dagola  
biotzez jausia,  
ez dala esatea  
gauza itxusia;  
ori argi ta garbi  
dago ikusia,  
gizon da abereen  
lege nagusia.

7 Amak ez beza artu  
ontan naigabea,  
len esan det nola dan  
munduko legea;  
len zu izanagatik  
berdiñik gabea,  
gero beste lagun bat  
da gure jabea.

8 Zenbat pizti amaren  
kabitxoan azi,  
garaia irixtean  
dijoaz igesi;  
naiz eta bere amak  
ori ez merezi,  
legearen indarra  
daukagu nagusi.

9 Bizia duan dana  
ala da juana,  
badakizute bide  
ortatik nuana;  
danen Egillea da  
au jarri zuana,  
ez dago ondo ezetz  
esaten duana.

10 Au da bizitzan danok  
egiten deguna:  
aseran ama maite  
ta gero laguna;  
ama utzitzen degu  
eltzean eguna,  
len da orain auxen da  
gertatzen zaiguna.

11 Beti ama bakarrik  
maiteko bagendu,  
munduari bizia  
gentzaioke kendu;  
bide orretatikan  
gu ezin aldendu,  
bizian jarraipena  
orrek ematen du.

12 Amak umeak ditu  
biotz erdirako,  
umeak ama berdin  
beren aldirako;  
aseran uste arren  
dala betirako,  
maitasun ori ezta  
bizi guztirako.

13 Denai erantzuteko  
nik nai nuke presta,  
bakartiak mintzatzen  
dira ain errez ta:  
“Ama bezelakorik  
mundu ontan ezta”;  
orrela izaten da  
ezkongaien pesta.

14 Maitasunik aundiña  
dala amarentzat,  
au gezurra ote dan  
idurututzen zat;  
naiz ta txikitan ala  
guk izan beretzat,  
erdia baiño geio  
da beste batentzat.

15 Amak eta umeak  
berengan alkarte,  
ez dute ibili nai  
alkarren aparte;  
umeak amarengan  
mudantza dakarte:  
berakin bizitzen da  
azitzen dan arte.

# Agur, Urtezar!

(1988)

---

1 Agur, Urtezar, milla beatzireun  
ta larogei ta zortziko,  
zure oroitzak gorde nai ditut  
nik biar edo etziko.  
Danera jota urte bapoa  
ziñan nere iritziko,  
alde kaxkarrak baziñun baiña  
etzaitut gaizki utziko.

2 Egin dituzun onengatikan  
milla esker, Urte Zarra,  
mesede asko jaso degula  
dago aitortu bearra.  
Pake-bidean naizta ez artu  
guk nai aiñako indarra,  
obea izan zindezken baiña  
etziñan zearo txarra.

3 Euskadin ere gertatu dira  
ezbear da zorigaitzak,  
batzuk berezko eta besteak  
gorrotoaren emaitzak.  
Sendi batzuek ikuitu ditu  
eguzki beltzaren printzak,  
baiña oriek berekin ditu  
mundu ontako bizitzak.



4 O, Urte Zarra, ni aritu naiz  
zer izan zeran esaten,  
zutaz azturik zeuden guztiak  
berriro oroi zaitzaten.  
Danen izenez orain ari naiz  
zuri eskerrak ematen,  
ta berriari lagun zaiozu  
askoz ohea izaten.

5 Urte Berriak ekarri beza  
berekin gozotasuna,  
danen gainetik izan dedilla  
alkargan maitetasuna.  
Sendi ta erri-giro jatorra,  
pakea ta osasuna,  
lur ontarako ez al da ori  
naiko aberastasuna?

6 Larogei eta beatzikoa  
ez bedi izan antzua,  
bitartekotzat jarri nai det nik  
jaioberri dan Aurtxua.  
Biotz-biotzez eskatzen dizut,  
ene Jaungoiko altsua,  
komeni bada eman zaiguzu  
urte bat zoriontsua.

# Aiako Azentzio-peria

(1989)

---

1 Zerbait esan nai nuke  
Azentzio-periz,  
Aian ospatzen dana  
ia bost gizaldiz.  
Eten baten ondoren  
indarrean berriz,  
aurtengoakin degu  
irugarren aldiz.

2 Iñork jakin nai balu  
emengo berririk,  
pake-giroz eztago  
olako erririk.  
Gozatu nai duanak  
biotz ta begirik,  
ez dezala utsegin  
Aiako peririk.

3 Sal-erosketa degu  
perian jatorri,  
indarrean eustea  
nai genduke orri.  
Erropa, tresna, zekor  
eta abelgorri,  
ikusi zale dana  
Aiara etorri.

4 Aian denetik dezu:  
peri eta festa;  
irakurle, bixita  
egiteko presta.  
Oso ondo bazkaldu  
ta bi milla pezta,  
orrela etortzea  
arritzeko ezta.

5 Auzo-erritan bizi  
diran aiatarrak,  
esnatuko al ditu  
nere deadarrak.  
Agurtzeko aideak  
eta lagun zarrak,  
egun oiek ez dira  
ortarako txarrak.

6 Peri-egunez ezta  
euria atsegin,  
Santa Klarari bear  
diot nik itzezin:  
arrautzak artu eta  
bixita bat egin,  
egun ortan giroa  
ona izan dedin.

7 Orduan giro ona  
nola dan komeni,  
sinismena badiot  
santa maite oni.  
Arrautzak artu eta  
juango naiz neroni,  
iritxiko detala  
seguru nago ni.

8 Lengo oitura zarrak  
bear du segira,  
irakurle, jar zaitez  
onuntza begira.  
Azentzio igandez  
Aiako errira  
bixita bat egiñez  
azaldu perira.

9 Senti bezela diot,  
sinista ezazu,  
Lertxundi zuri deika  
gaurdandik daukazu.  
Neri zerbait esan nai  
baldin badidazu,  
egun orretan Aian  
ikusiko nazu.

# Pelota- -Txapelketa

(1989)

1 Milla beatzireun larogei eta  
beatziaren partean,  
igandea ta maiatzak zazpi  
zituen egun batean,  
len txapelduna Retegi zegon  
eta beatzi urtean,  
amargarrena Tolosak kendu  
naiz ez izan apartean;  
partidu ori oroituko da  
pelota degun artean.

2 Txapel-mordoa zeukan Retegik  
jarraian, danak beatzi;  
beraren aurka asten ziranak  
azkenean danak etsi;  
baiña Tolosak aurtengo ontan  
ez dio ain errez utzi,  
ta azkenean nagusi bera  
ogei ta bi ta emeretzi,  
merezi du ta txapela orri,  
Joxean, luzaro eutsi.

3 Aseratikan ekin zenion  
atzera gogor ematen,  
ikusitzen zan etzala errez  
gero ura eramaten;  
azken aldera ezin aundia  
jar zitzaizun esku baten,  
asko suprituz ari ziñala  
askotxok zuen esaten,  
baiña supritzen ez dakianak  
txapelik eztu izaten.

4 Partidu dana asi ta buka  
ezin da obeto osa,  
aurrez-aurre an jarri baitziran  
gizon pare apraposa;  
galtzen duanak beti du pena  
ta irabaztunak poza,  
makiña batek zuei begira  
egun artan zuen goza,  
gauza aundia lortu dek eta  
bejondaikela, Tolosa!

5 Joxean orrek txapeldunari  
benetan eman aurpegi,  
aurretik asi, bitan berdindu,  
berriz e aurrera segi;  
partidu latza eta estua,  
etzan pantasi geiegi;  
txapela jaztea lortu arren  
ez dek izan errezegi,  
milla zorion iri, Tolosa,  
eta berdin, Erretegi.

6 Burruka ori ez bedi izan,  
ez, iñoren kalterako,  
neurketa latza eman zenduten  
txapelketa baterako;  
ori gogoan izango degu  
bizi geran arterako,  
ez ote zaigu gazteetatik  
jarraipenik aterako?  
Ori litzake etorkizuna  
pelotaren onerako.

# Baratzako satorrari

(1989)

---

1 Sator bati bertsoak  
bere omenean,  
nere baratzen jardun  
baita lanean.  
Lur guztiak arrotu  
ogei egunean,  
oso bildurtu nintzan  
orren jardunean.  
Nik ondamenean  
ikusi nuanean,  
estutasunean  
deitu azkenean  
konpontzio batera  
onez onean.

2 Deitu nion esanaz:  
“Adi zak, satorra:  
neretzako ez abil  
oso jatorra.  
Landare-zaiñak jan da  
nunai lur-tontorra,  
egindako kaltea  
alain dek gogorra.  
Baldintza bat orra:  
kito lengo zorra,  
nere sail koskorra  
ez geiago jorra;  
bestela izango dek  
naiko zigorra”.



3 Ez diot gorrotorik  
lengoagatikan,  
danak barkatzen dizkat  
biotzetikan.  
Baiña orain jarri det  
kontu emanikan,  
lenbailen joateko  
baratz ortatikan;  
esanagatikan  
ez dio ajolikan,  
lengo bidetikan  
dabil gogotikan;  
neri ez dit egiten  
jaramonikan.

4 Baratzatik joateko  
ez dauka gogorik,  
nunbait eztu utzi nai  
jaki gozorik.  
Nik ere neretzako  
nai nuke osorik  
esandakoai egin  
balio kasorik,  
tranpa ta zeporik  
edo antzekorik  
orri jartzekorik  
ez nuan asmorik;  
orain eztu izango  
barkaziorik.

5 Onez onean eman  
diot nik arpegi,  
baratzatik joateko  
esanaz garbi.  
Lengoa ere badet  
naikoa pikardi,  
alperrikan galtzeko  
ainbeste izardi.  
Lengoa geiegi,  
ezpadago geldi,  
konturatu bedi,  
obe du ez segi;  
damutuko da baiña  
beranduegi.

6 “Satorra, izan dezu  
gozatzeko era,  
baratzan nola zegon  
naiko aukera.  
Baiña iritxi zaizu  
orren bukaera,  
errukirik eztago  
emendik aurrera.  
Nere esanera  
jartzen ezpazera,  
kontuak atera,  
zeuretzat kaltera;  
galtzekoz zeure erruz  
galduko zera”.

7 Arroturikan dabil,  
eztago apala,  
ain dago berekoia  
eta zitala.  
Bere burua zaintzen  
etziok makala,  
erosotik jatea  
dauka martingala;  
leguna azala,  
bizkarra zabala,  
aldentzen eztala,  
azkena daukala;  
bizi nai badu anka  
egin dezala.

8 Ni izanagatikan  
baratz-nagusia,  
aspaldian egin du  
nai dun guzia.  
Baiña orain txit garbi  
dauka ikusia:  
barruan ez daukala  
denbora luzia.  
Galdu du auzia,  
or du justizia,  
zigor berezia  
dauka merezia:  
utziko du baratza  
edo bizia.

9 “Nere kontura ez dek  
ik geiago jango,  
pakerik ez baidiat  
orain emango.  
Etsai bat ire zai or  
nola dan egongo,  
gau eta egun ernai  
i zaituaz ondo,  
ez didak esango  
ez aizela joango,  
plazoa aurtengo,  
laister aiz ertengo;  
ain toki onik berriz  
ez dek izango”.

- 1 Urte guziko jardunarekin  
soiñaren adar-enborrak,  
egia esan, artzen dituzte  
nekatu-aldi gogorak.  
Indarberritu bat izan dezan  
gorputz zar onen motorrak,  
orretarako artzen dituzte  
illabeteko oporrak.
  
- 2 Opor-garaitzat geientsuenak  
artzen dute dagonilla,  
erria utzi eta juateko  
lurralde berrien billa.  
Al dan azkarren igaro nairik  
egundoko bide-pilla,  
amets-tokira iritxi gabe  
zenbat gelditzen dan illa!
  
- 3 Bidean zenbat gelditua dan  
alargun da umezurtza!  
Okerrrik gerta etzaiotenak  
iritxi ziran aruntza.  
Jaiak bukatu eta berriro  
abitu bear onuntza,  
ezbear gabe etorritzeko  
izan bezate laguntza.

4 Norbaitek esan lezakena da  
lengo moldeko naizela,  
ara zer gauza gertatzen diran  
urruti dijoazela.  
Gaietan daudenai esaten diet  
konturatu ditezela,  
iñun ez tala atsedentzen bat  
bere errian bezela.

5 Jaiakin norabait joatea  
dago bolaran jarria,  
urrutietara dijoaz asko  
utzirik beren erria.  
Ta gero dator mordo bat il da  
zauritutako berria,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
ez al da negargarria?

6 Zurrunbilloan sartua dago  
ogeigarrengo mendia,  
eta ortikan ezin atera  
gaur eguneko jendia.  
Urrutietara eramanez du  
bakoitzak bere sendia,  
eta sarritan ortatik dator  
askoren ondamendia.

7 Gertatu zaigu urte gutxian  
ain aldatuta jartzea,  
irten ezin dan zurrunbilloan  
au da gizona sartzea!  
Maiz gertatzen da opor-garaiak  
ondamena ekartzea,  
ortara ezte asko balio  
urteko jaiak artzea.

8 Oso gertuan badaduzkagu  
oinbeste toki berezi,  
eta oietan saiatutzeak  
ez al du pena merezi?  
Bidai oietan zenbat iltzen dan  
ikus dezagun lenbizi,  
urrutietan iltzea baiño  
bertan obe degu bizi.

# Erreumak ondatu nau

(1989)

1 Arkitutzen naiz gaixorik,  
reuma zarrak erasorik,  
ezin det eman pausorik,  
ta urrengoan ezin mugitu  
eskurik eta besorik;  
burua ezin jasorik,  
patxarazko ta gozorik  
ez daukat egun osorik.

2 Junturak zaizkit aunditzen,  
ezin asmatu ibiltzen,  
gorputza doa gelditzen.  
Nere sasoiaren ikusita  
guztiak daude arritzen;  
mejorik ez det sentitzen,  
asia nago etsitzen,  
ez daukat giro bizitzen.

3 Gaitz zital orren indarrez  
nabil itxura baldarrez,  
otz-ikara ta daldarrez.  
Sendagilleak ezin asmatu  
sendagairik zoritxarrez;  
nago aitortu bearrez:  
len nintzana irriparrez  
orain bizi naiz negarrez.



4 Pauso bat eman aldiko  
jartzen naiz bildur aundiko  
lurrera noiz eroriko.  
Goiko laguntza eskatutzen det  
jarririkan belauniko;  
ni ortantxe naiz ariko:  
gaitza nola bidaliko,  
ez bedi izan betiko.

5 Asia nago kezkatzen  
eta gogoa esnatzen  
San Antonioz pentsatzen:  
“Santu maitea, ni gaixorikan  
nolatan naizen gertatzen,  
ez det besterik eskatzen:  
asi gaitzetik askatzen,  
lagun zaidazu sendatzen”.

6 Iñun sendagairik eza  
ain da gauza aldrebesa,  
ezta lortutzen erreza.  
San Antonio, bene-benetan  
egiten dizut erreza;  
eskeintzen dizut promesa,  
entzuteko iru meza,  
baiña min au kendu beza”.

7 Sortzean gaixotasuna,  
sartzen da goibeltasuna,  
galduaz alaitasuna.  
Entzule maite, zu baziñake  
gaitzikan ez daukazuna,  
zer da baten ondasuna?  
Izatea osasuna,  
ori aberastasuna.

8 Ni lenago atsegiñez,  
orain arkitzen naiz miñez,  
ta nola kendu jakiñ ez.  
Alaitasunik ezin arkitu  
naiz saiatu alegiñez;  
umoreak aldegiñez,  
gau eta egun eziñez,  
gaur nabil negar egiñez.

9 Era onetako gaitza  
ain da bialdutzen gaitza,  
ta ori da zorigaitza.  
Ondo geranen milla aitzaki  
kontatuaz bagabiltza.  
Orain zer bear det mintza?  
Ai, sendatuko banintza!  
Auxen da gure bizitza!

*(1989-ko Basarri bertso-paper  
leiaketan bigarren saria irabazia.)*

# Sorterri maitea

(1990)

---

1 Sorreratikan dator au,  
ezta gaurko berria,  
arraza batek sortzen du  
beraren aberria.  
Motaren araberako  
zugaitzaren orria,  
ezta ajola zuri, beltz,  
ori edo gorria,  
ortatik datorrena da  
gizonen jatorria,  
arrazak eman dizkigu  
izkuntza eta erria. *(Bis)*

2 Nik dadukaten guztia  
eta zuk daukazuna,  
izkuntza eta erria  
bi oien batasuna,  
oietzek eman digute  
daukagun nortasuna.  
Sorlekuan bizitzeko  
nai bada poztasuna,  
lortu ditzagun pakea  
eta askatasuna,  
ori da sorterriari  
zor zaion maitasuna.

3 Erria gora dezagun  
bakoitzaren langintzan:  
ola edo fabriketan,  
berdin nekazaritzan,  
arrantza edo artzantzan,  
damakigun bizitzan,  
lotsik gabe aitortuaz:  
“Ni emen sortu nintzan”.  
Naiz batek orduak egin  
otoitzean elizan,  
erria ukatzen badu  
orrekin kontu izan.

4 Gure altzuma sortu da  
erriaren zaiñetik,  
gure izatea dator  
bere eragiñetik,  
oraiña osatzen degu  
leen zaarraren soiñetik.  
Gaurkoaren jatorria  
daukagu antziñetik.  
Josi ta bizi gaitezen  
sorlekuan muñetik,  
bera beti maitatuaz  
beste danen gaiñetik.

5 O erri, zure altzoan  
sortu nintzan mundura,  
geroztik babestu nazu  
ama baten modura.  
Zure gauzak gordetzeko  
nik badaukat ardura:  
izkuntza, dantza, jolasak  
eta ainbat oitura.  
Gai ontan seme guztiok  
bear degu kontura  
ori dala erri baten  
egitazko kultura.

6 Bakoitzaren sorlekua  
zer gauza berezia!  
Gure eskerrik onena  
ain dauka merezia.  
Batek bera aztutzea  
zer gauza itxusia!  
Nerekiko orixe da  
pekatu nagusia.  
Beretzat eman dezagun  
dadukagun guzia,  
semeen esku baitago  
erri baten bizia.

7 Erri maitea, zu zaitut  
babesleku bakarra,  
illunaldietan argi  
egindako izarra,  
sarritan eman didazu  
bizitzeko indarra,  
derrior daukat nik zuri  
esker eman bearra.  
Erbesteratzen banaute  
uraxen zoritxarra,  
orduan sortuko baizait  
betirako negarra.

8 Erria zapalduzikan  
nik ikusi-aldiko,  
nola etzaizkit malkoak  
tantaka eroriko?  
Ez ote ditut etsaiak  
zugandik bidaliko?  
Bildurtzen naiz ote zeran  
itzali edo ilko.  
Une batez banintzake  
nere almenez Jainko,  
zorionekoa izango  
ziñake zu betiko.

# San Donato Jaiak

(1990)

---

1 Eratzaille zeraten  
mutil eta neska,  
zer jai diran errian  
nator ni galdezka.  
Danak gozatutzeko  
jar zazute festa,  
urtean bein dira ta  
arritzeko ezta.

2 Ez bedi falta txistu  
ta kanpai-otsikan,  
eta poltxikoetan  
bear dan xoxikan,  
Aur, gazte eta zarrak  
guztiak pozikan,  
festetarako ezta  
olako gauzikan.

3 Festa-giro eder bat  
eskatuaz nago,  
eta au nere ustez  
gure esku dago.  
Festan pake zaleak  
giñan gu lenago,  
eta izan dedilla  
gero eta geiago.

4 Abuztuan zazpian  
zaindarian jaiak,  
umorez ibiltzeko  
badatoz garaiak.  
Festak egin ditzagun  
jator ta alaiak,  
bere izen onari  
eutsi deion Aiak.

- 1 Urtebete bat igaro degu  
egualdi zoragarritan,  
eguzki-paltik ez degu izan  
kale eta baserritan.  
Uraren paltak erri batzuek  
naiz jarri une larritan,  
joan dan urte au gerora ere  
oroituko da sarritan.
- 2 Kanpotar danak lengo urtetan  
egualdiaren peskizan,  
ta aurten berriz ibili dira  
toki oneneko gisan;  
nai duten ainbat eguzki artu,  
an aspertzean kerizan,  
aurtengo ontan giro txarraren  
aitzakirik ezin izan.
- 3 Udara asko izan da emen  
euritsu edo bustia,  
ta aurten berriz noizik bein zerbait,  
ori izan da guztia.  
Ipar aizea eta oskarbi,  
egunero eguzkia,  
berriz alako saio ederra  
kostako da ikustia.



4 Aurten izan dan bezelakorik  
izan ote egundaiño?

Bero sanoak egin dizkigu,  
ez goi erre ta ez laiño.

Orren inbiriz geientsunetan  
gu izaten gera, baiño  
ara nolatan gertatu geran  
onetik aspertzeraíño.

5 Beste urte bat olain ederra  
ez da noiznai azalduko,  
baldin baletor pozik besoak  
geniozke zabalduko.

Jendea esanez euri ederra  
ez ote zaigun elduko;  
orain kejatzen asiak dira  
eraso dion orduko.

6 Joan dan urte au aparta gendun  
mendi eta basorako,  
legortarrentzat apartekoa  
ta berdin itxasorako.

Norbere etxerako ona ta  
baita ere auzorako,  
nik alakoa artuko nuke  
bizialdi osorako.

# Elormendiren ateraldiak

(1990)

1 Bertsoen bidez eman nai ditut  
aurrekoen albisteak,  
kalterik eztu umorearen  
txinparta oiek pizteak;  
ura ezagutu etzutenari  
naiz lan eman sinisteak,  
oraindik ere alaitu leizke  
biotz goibel da tristeak,  
ondo kontatuz Elormendiren  
ateraldi ta txisteak.

2 Iñori zerbait erantzuteko  
onela oi zan aritu:  
mingaiña eta bere eskua  
konpas batean mugitu;  
zerbait xeblebre asma eziñik  
sekula etzan gelditu...  
Nere bertsoak irakurtzean  
danak litezke arritu,  
Elormendiren grazi arekin  
nik kontatuko banitu.

3 Elormendi ta Estebani  
bein peri baten pasia:  
Elormendi zan mertxeroekin  
orraze-tratun asia;  
ta Estebani tratu orretxek  
nonbait egiñik grazia,  
esaten dio: "Ipurditikan  
jun zaiguk ille guzia,  
eta orrela soildutakoak  
zertako dik orrazia?".

4 Elormendiri erantzun auxen  
azkar etorri burura:  
"I arritu aiz ni sartutzea  
orrazearen tratura?  
Peritik zerbait eramateko  
beti zedukat oitura,  
buruko illeak jua zaizkidak  
neri ere ire modura,  
baiña ipurdian falta zaitenik  
oraindik ez nauk kontura".

5 Negu-giroko goiz beltz batean  
irtetean atarira,  
danetik eiza nabaitu zuan  
eta jo zuan mendira;  
nunbait aidera ezin zuan da  
bota nairikan geldira,  
jo eziñikan an ari zala  
eizari tira ta tira,  
eiztari Fermin inguratu zan  
bera ari zan tokira.

6 Fermiñek zion: “Zer mugimentu gaur eizak garai ontako!”  
Elormendiren erantzuna zan:  
“Gaur dana nere kontrako.  
Geldi dagon bat arrapa naian  
or ibili nauk jo ta jo;  
mugimentutik ondo zebiltzak,  
iaioak zeudek ortako;  
motelagoak nai dizkiat nik,  
bestela ez dit botako”.

7 Elormendi ta beste lagunak  
bein ostatuan zeudela,  
bertsotan zerbait jarduten zan bat  
inguratu zan berela.  
Batek, bertsotan asteagatik,  
agindu zion onela:  
“Kafe eta kopa emango dizkit  
lengo jaiean bezela;  
baiña sei bertso bota beaituk,  
ez dek izango bestela”.

8 Kantari gogor eraso zion  
naiz eta izan baldarra,  
dozenatikan gora zijoan,  
ez dozen erdi bakarra;  
gero Elormendik onela zion  
egiñikan irriparra:  
“Ik asitzeko kafea eman da  
orain jo ziguk adarra:  
ixiltzekotan derrior ziok  
afaia eman bearra”.

# Nere diruarekin ezin agindu

(1990)

1 Gertatu zaiten gauza  
nik nai nuke konta,  
arritzen nago ta:  
berrogei urte luzez  
izardia bota,  
presa azkar bete nai  
ta itxi konporta,  
zerbait supritu arren  
etzidan inporta;  
milloi bat sobratu det  
egiñalak jota.

2 Naiz eta asko kosta  
azkenean osa,  
ura nere poza!  
Arantza tartetikan  
sortu zan arrosa.  
Kutxa iruditurik  
toki apraposa,  
or sartutzearekin  
ez det asko goza:  
diru-jabe egin da  
*Caja-Ahorros-a.*

3 Neronen lagun batek  
kotxe bat aparta  
salgai zeukala-ta,  
erosi egin nion  
nola nuen falta.  
Nere milloia nunbait  
Kutxan an zala-ta,  
ordainduko niola  
andik aterata,  
baiña eramana det  
deskuido galanta.

4 Ni juan nintzanean  
zerbait jakitera  
Kutxako atera,  
kutxazaiñak “Zer nai dek?”  
lenengo galdera.  
Esan nion: “Milloia  
nai nuke atera”,  
eta bera ausartu  
auxen esatera:  
“Eztago ematerik  
guztia batera”.

5 Batek ez al du gero  
bizitzea pobre  
emen askoz obe,  
egiten duna janez  
aurreratu gabe?  
Detan pixkak eman dit  
amaika naigabe,  
Kutxa ori jartzen det  
lapurraren pare,  
bera egin dalako  
nere diru-jabe.

6 Nere diruan billa  
Kutxara juanda,  
irixtean txanda,  
an nedukan milloia  
eskatu nuan da  
ortxe utzi naute ni  
ezetza emanda.  
Benetan arrigarri  
gauza au ez al da:  
milloia ukatzea  
nerea izanda?

7 Kutxako arazoak  
ari naiz aitatzen,  
zer zaiten gertatzen:  
milloi bat an sartuta  
nengoen txoratzen,  
beartu naizenean  
asi naiz eskatzen;  
itxura danez zailla  
daukat ateratzen,  
nik beintzat olakorik  
ez nuan pentsatzen.

8 Nere bizitzan nola  
detan nik jokatu  
egin det kontatu;  
zenbat aldrebeskeri  
zaizkidan tokatu.  
Kutxakoak nerekin  
ez dira portatu,  
milloia eduki ta  
ezin det kobratu,  
orrela zertarako  
dirua sobratu?

9 Kutzakoak diote:  
"Guk gentzake presta,  
bear dunak eska".  
Ori sinistutzeko  
badet naiko kezka,  
proatua baidet nik  
Kutxa orren festa:  
batera sartu leizke  
berreun milloi pesta,  
ta bat ateratzeko  
baimenikan ezta.

10 Askoren iritziak  
noa esatera,  
ain datoz batera,  
eta kontatutzeko  
orain det aukera.  
Kontsejutxo bat denoi  
nator ematera:  
Kutxatik ezin bada  
dirurik atera,  
sartu baiño lenago  
kontuak atera.



# Loidisaletxeren oroimenez

(1990)

- 1 Kantari asiko naiz  
txorien moduan,  
nola garaiak ala  
gonbidatzen duan.  
Baiña udaberria  
eldu dan orduan,  
kuku bat etorri da  
ta beste bat juan.
  
- 2 Ainbat goibeldu ziran  
gure euskal erriz,  
egunkari ta irratiz  
zabaldu zan berriz  
Ku-ku jo zuan orrek  
ainbat udaberriz,  
gure artean eztu  
abestuko berriz.
  
- 3 Bigarren egunean,  
aurten apirillen,  
illeta baten bildu  
giñan Errezillen.  
Batzuek itzetan da  
besteak ixillen,  
Loidisaletxe danen  
aotan zebillen.

4 Loidisaletxe zana-  
rengatik naiz ari,  
illetan bildu giñan  
jendea ugari.  
Otoitz egin genion  
zeruko Jaunari,  
berekin ar zezala  
Antonio Mari.

5 Senarra eta aita  
galdu betiko ta  
bere sendi maitea  
zegon miñez jota.  
Baiña beste biderik  
emen ez dago ta  
aurrera denok tinko  
biotza jasota.

6 Euskadi serbitua  
zuen urte askoz,  
orregatik lagunak  
utzi gaitu malkoz.  
Enbor zarretik kimu  
berriak badatoz,  
bertsozaleai orrek  
ematen digu poz.

7 Emendik bialtzen det  
nere oiartzuna,  
alperrik galdu gabe  
bada nork entzuna.  
Beraren odolean  
dauka erantzuna:  
semeak beteko du  
aitaren utsuna.

8 Semeai abixu bat  
nai diot bialdu,  
zer esan nai nioken  
ulertuko al du:  
zaiñak eta adarrak  
azi ta zabaldu,  
aitak emandakoa  
ez alperrik galdu.

9 Aitortzen det txit goibel  
arkitzen naizela,  
ikusirikan zarrak  
badijoazela.  
Uste det gelditzera  
laster goazela  
artzairikan gabeko  
ardiak bezela.

10 Ainbeste bertsolari  
mundutikan juan,  
Lekuona, zuk ere  
aldegin zenduan.  
Sendi bat osatuaz  
guztiok zeruan,  
bildu itzazu danak  
zeure inguruan.

11 Umezurtz gaude orain  
aitarik gabeko,  
errez artu gentzake  
bide okerreko.  
Artzaiari deitzea  
genduke obeko,  
zaindu gaitzan guztiok  
goiko eta beko.

12 Jundako denai agur  
biotza betean,  
nai nuke gertatzea  
guziok batean,  
poza ta zoriona  
dagon elkartean,  
antxe gozatutzeko  
betiko pakean.

# Praktikante zarrari

(1990)

---

1 Praktikante bat Aian  
garai baten bazan,  
sendagille trazan  
lan egiña ogei ta  
amar urte pasan,  
serbitzu egin zuan  
artutako plazan;  
amaika otz-bero ark  
baizituen jasan,  
bertsotan jarriko det  
nola portatu zan.

2 Amalio jauna zan  
txiki ta kaxkarra,  
baiña etzan txarra;  
izkuntza berriz zuan  
erdera bakarra.  
Zaldi bat ibiltzeko  
eta naiko zarra,  
kottarua naiz egon  
makaldu xamarra,  
nagusiak bazuan  
beraren bearra.

3 Biak gau eta egun  
lanean burruka,  
zearo purruka;  
egin zuten bizitzak  
ni errukiz nauka.  
Urte dana orrela  
asi eta buka,  
serbitzuko zirala  
ezin leike uka,  
zenbat sufritu zuten  
esker txarren truka.

4 Umerik bear bazan  
serbitzen aparta,  
ortantxe ausarta:  
laster egiten zuan  
Parisera karta.  
Baita ekarri ere  
aur-pilla galanta,  
arrek egin zuana  
arritzeko da-ta:  
besteri aurrak eman  
ta beretzat falta.

5 Jakin zazute berak  
andrea bazula,  
gaiñera mardula;  
aurrik etzuten eta  
nairik disimula.  
Bere paillorik etzan  
entzuten sekula,  
sinistu zuri ere au  
esango zizula:  
“Nik balio det baiña  
andrea det *mula*”.

6 Zenbat ume besteri  
eman zion pentsa,  
eta au da beltza:  
beretzat eskatzean  
zedukan ezetza.  
Ezin egi biurtu  
zeukaten ametsa,  
biak txarrak gertatu  
laratz eta pertza:  
bat antzua izaki,  
bestea aketza.

7 Ainbat urtez errian  
gaixo ta eritu  
zituen serbitu;  
eta aur-karraioan  
etzan, ez, gelditu.  
Ondorengoak pranko  
errian baditu,  
ume-kontuaz ezin  
ziteken arritu,  
etxerako batzuek  
ekarri balitu.

8 Lanarekin etzan, ez,  
aserre jarriko,  
baizik par-irriko;  
gizon txikia baiña  
aundien neurriko.  
Ez izanagatikan  
gure jatorriko,  
azkenerako egin  
zitzaigun erriko,  
praktikante oberik  
ezta etorriko.

9 Gaitza sortzen zanean  
alain itxusia,  
jartzen zan autsia,  
ezin irabazirik  
gaitzari auzia.  
Biotz aundiko zala  
dago ikusia,  
ark ondo bete zuan  
lege nagusia,  
besterentzat emanaz  
zedukan guzia.

*(1990-ko Basarri bertso-paper  
leiaketan leenengo saria irabazia.)*



# Marino Lejarreta

(1990)

1 Marino, zuri buruz  
eltzen diran berriz  
arritzen naiz egiz;  
batzuek ikusiak  
ditut nere begiz.  
Marino, poztu zaite  
sortu ziñan erriz,  
arrotzeko moduan  
gaur zaude zu, berriz,  
seme oberik zukan  
ezin sortu berriz.

2 *Euskadi* jokatuta,  
Españiko bira,  
gero Italira,  
*tourra* korritutzera  
ondoren Frantzira.  
Bi urtetan iritxi  
bostgarren tokira,  
zu iritxiko ziñan  
lenengo arraira,  
beste bi *tour* jarraian  
an izan balira.

3 Telebistaz Marino  
sarritan ikusi  
ortxe jo ta autsi,  
supritzen dakizula  
dezu erakutsi.  
Ia mundu guztia  
arrituta utzi,  
tresna ori maitatzen  
bera da nagusi,  
oiera ere joaten da  
txirringa ta guzi.

4 Frantzik etortzean  
Euskadin lenbizi  
zenduan Ordizi;  
joan dan urtean ere  
errez irabazi.  
Aurtengo ontan berriz  
lagunari utzi,  
gizatasuna zer dan  
garbi erakutsi,  
gorantza besterikan  
ez dezu merezi.

5 Marino Lejarreta,  
gizatasun-eran  
zein aundia zeran!  
Ea jarraitzailleak  
konturatzen geran.  
Beti azaltzen zera  
gizonen tankeran,  
etzera ibiltzen zu  
lagunekin teman,  
dana egiten dezu  
artu eta eman.

# Mendi baserriko ardi-txakurrari

(1991)

1 Auzoko baserriak  
izena du Mendi,  
or zan ardi-txakur bat  
deitzen zana *Mendi*.  
Ardi zai zebillela  
baso eta mendi,  
eiztari bat izan zan  
bere ondamendi.

2 Etxean jaio ziran  
bi eme ta bi ar,  
*Mendi* bakarrik azi,  
geio etzan biar.  
Nagusiak esana  
makiña bat biar:  
“Inbiriz ilko aute  
i gaur edo biar”.

3 Dalako eiztaria  
deitzen zana *Eldu*,  
*Mendi* ari zaunkaka  
naiz eta ez eldu.  
Orduan eiztariak  
fusillari eldu,  
txakurraren azkena  
orrelaxe eldu.

4 Talde ederra zeukan  
ardi eta ari,  
oien illez egiñak  
ainbat kilo ari.  
Au dana zor zitzaion  
txakur gaixo ari,  
orain illa dago ta  
deika zertan ari?

5 Oraindik gaztea zan  
urtez eta illez,  
gorputz dana betea  
bizarrez ta illez;  
egin bear zuana  
zan txakurra ill ez,  
zer aurreratu zuan  
gaixo ura illez?

6 Muturra zabaldurik  
bere ortz eta au,  
txakurrak eiztariai  
egin zion: "Au! Au!".  
Esan zion: "Tiroak  
bildurtzen ez al au?".  
Orrela etorri zan  
*Mendi*-ren azken au.

7 Tiroa sartu zedin  
txakurran illera,  
postak jaurti zizkion  
bosteko illera.  
Urtea irixtean  
urriko illera,  
orrelaxe izan zan  
*Mendi*-ren illera.

8 Ardi-zai aparta zan  
Mendi txakur arra,  
geienez izango zan  
altuan bi arra.  
Il zanean mantendu  
eun dozena arra,  
iltzailleak barruan  
an du bere arra.

9 Txakurra asko kostatzen  
zan ainbat aztea,  
oraindik geiago  
ardi-zai astea.  
Gero aien ondoan  
jaia ta astea,  
obe aren kontuak  
zearo aztea.

10 Illobian nik jarri  
nizkion bi arri,  
ainbat nola egin ez  
txakur gaixo arri?  
Mantenkizun emana  
ainbat milla arri,  
orain arentzat berdin  
iso edo arri.

11 Mendi-k ardiak zaintzen  
zuan naiko arte,  
pasa erazten zien  
zenbait baso-arte.  
Ez kur onenak janez  
aritz eta arte,  
ardiak ondo ziran  
ura zuten arte.

12 Eiztari gaizto ura  
etzan biotz bera,  
eta idikitzean  
eizerako *bera*,  
txakurra il zuana  
izandu zan bera;  
orrela bukatu zan  
aren gora-bera.

# Atzerriko oporrak

(1991)

1 Orain zortzi bat urte  
lagun bat banuan,  
langintzaz etxegiña,  
deitzen zana Juan.  
Bretaña Aundirako  
amets ori zuan,  
oporrak artutzean  
aruntza zan juan.

2 Bere izen-deituraz  
zan Juan Arresa,  
semeak Ion da Iker,  
andrea Teresa.  
Nola eginda zeuden  
arako promesa,  
oporrak pasatzera  
juan ziran Londresa.

3 Iritxi ziranean  
Londresko kalean,  
bazkaldutzero sartu  
ziran otelean.  
Ase ziran barazki  
eta okelean,  
aitari kalte egin  
zion sabelean.

4 Jatean barazki ta  
okela erreak,  
aitari jun zitzaizkan  
irri ta parreak.  
Eman zion beerako  
edo diarreak,  
etzion onik egin  
Londresko larreak.

5 Aita gaizki jarri zan  
sabeleko miñez,  
broma ta berriketak  
bapo aldegiñez.  
Komunera joan da  
indarka egiñez,  
ordubete pasea  
bazuan gutxiñez.

6 Komunetik irten da  
jartzean argiro,  
kalera jetxi ziran  
nola zegon giro.  
Eta an zebiltzala  
geldiro-geldiro,  
aita len bezelaxe  
asi zan berriro.

7 Sar nai zuan kaleko  
komunen batera,  
baiña iñun aztarnik  
etzuan atera.  
Gauza gertu ote zan  
emanik tankera,  
erioan jo zuan  
alboko parkera.



8 Eta arkitutzean  
bertan arbustua,  
antxen ezkutatzero  
zer itximustua!  
Bere sabel betea  
an zuen ustua,  
uraxe lasaitua,  
ura zan gustua!

9 Parkezaiña egiñik  
gertaeran jabe,  
inguratu zitzaion  
suabe-suabe.  
Arresa galtzak jazten  
guztiz doakabe,  
atzea garbitzeko  
betarikan gabe.

10 Ara zer egin zion  
parkezaiñak junta:  
bapo astindu zuan  
boligrafo-punta.  
Txartelean zigorra  
ark zion apunta:  
egin zuanagatik  
ogei *libra* munta.

11 Parkezaiñak zigorra  
jarri ogei *libra*,  
eskatu ordurako  
eman zizkan: “*Aiba!*”.  
Arresak ala zion:  
“Emen ezin *libra*;  
tripamiña kentzeko  
au dek labatiba!”.

12 Azkenik ala zion  
jenio biziko:  
“Londresa etorri naiz  
aurten lenbiziko.  
Juramentu egin det  
bizitza guziko:  
lur ontan ez nautela  
berriz ikusiko”.

# Luis Arrillagari omenaldia

(1991)

1 Luisek Arrillaga du  
jatorriz abizena,  
baiña Arruti izenez  
deitzeiogu geiena,  
Aiako bertso-eskolan  
maisutzan dabillena.  
Talde bat gera zorretan  
berarekin gaudena.  
Zuretzat izan dedilla  
erregali onena:  
gaur Aiako alkartean  
artzen dezun omena.

2 Badakit omena denoi  
oso astun zaigula,  
Luis, zuri ere ori  
gertatutzen zaizula,  
baña une berean zuk  
gozatuko dezula.  
Bertsoen alde egiña  
ain dezu lan mardula,  
sinistu biotzetikan  
eskertutzen degula,  
talde onek etzaitu, ez,  
zu aztuko sekula.

3 Maiatzak ogei ta seia  
dakarki aukerako,  
omenaldia jarria  
daukagu gauberako,  
baña jaialdi geiago  
badegu aurrerako.  
Gauza geiegi nola dan  
or egun baterako,  
peria utziko degu  
urrengo egunerako,  
Azentzio Aian beti  
berezia dalako.

4 Garai obean ezin da  
omenikan prestatu,  
naiz-ta erri osoari  
iritzia eskatu,  
guztia bete-betean  
nola baitan gertatu.  
Bi egun berezi daude,  
bakoitzak aukeratu,  
jaialdirik ezin leike  
egokigo tokatu:  
omenaldian asi ta  
periakin bukatu.

5 Afalduaz omen egin  
*Arruti* lagunari,  
giro ortan gau osoan  
guk nai genduke ari,  
Gero elduko diogu.  
urrengo egunari,  
perian izango baita  
zer ikusi ugari,  
pake-giroa emanaz  
inguratzen danari,  
orixe eskatzen diot  
zeru goiko Jaunari.

# Erreizta baserriko idiak

(1991)

1 Erreizta baserri sonatua  
dago Aiako partean,  
eta beratzaz kontatutzeko  
ara nik zer dakartean:  
ortik irten dan idipare bat,  
eta iru bat urtean,  
plazarik plaza ibili zaigu  
egundoko aldarlean,  
Erreizta argatik da ospetsua  
demalarien artean.

2 San Pedro eguna larunbatean  
aurten gerta zitzaigunez,  
Juan Erreizta etzan gau artan  
oso aurpegi illunez.  
Dema bukatu ta ondorenean  
berak aitortu zigunez,  
“Ogeigarrena irabazi det  
—ark zion alaitasunez—  
irurogei ta beatzi urte  
bete ditudan egunez”.

3 Juan Erreizta da nagusia,  
bera da idien jabe;  
lenago ere izanak ditu  
idi onak ainbat pare.  
Baiña oraingo oriek ditu  
beste guztien zutabe,  
bere ametsa lortu du eta  
ezta bizi doakabe,  
ogei alditan garaille baita  
bat bakarrik galdu gabe.

4 Idiak gobernatutzen Juan  
beti izan da berezi,  
semeak berriz ondo dakite  
nola zaildu eta ezi.  
Beti gogotsu jarrai diote,  
oiek eztute, ez, etsi;  
gizon da idi, oien sasoia  
jun baiño len or igesi,  
omenaldi bat goimaillakoa  
ez ote dute merezi?

5 Lanean beti jardun zerate  
oso era tajuzkuan,  
aurkari danak menderatuaz  
Bizkaian da Gipuzkuan;  
idi prestatzen doai aparta  
badago zuen eskuan,  
jendea pozik utzi dezute  
joko garbi, legezkuan,  
milla zorion eta jarraitu  
olaxe urte askuan.

# Joxe eta Agustiñen gaiztakeriak

(1991)

1 Gizon jatorrak sortutzen dira  
nunai kale ta baserri,  
eta tartean gaiztoak ere  
izan dira erriz erri.  
Nere auzoan bertan,  
nola entzuten detan,  
bi anai oso biurri  
gertatu ziran, eta nik orain  
emango det aien berri.

2 Ostatueta sartu orduko  
desapio ta erronkan,  
iñor aurkako jarri ezker  
berealaxe borrokan.  
Naiz aundiak ez izan,  
beti ala zebiltzan  
zarpaka ta mutur-jokan;  
Agustin eta Joxe sonatu  
argatik ziran epokan.

3 Bein bi anaiak, auzoko bati  
ostatuan erasorik,  
aundia izan eta bildurtu  
arek makilla jasorik.  
Baña gero gabeen,  
etxerako bidean,  
etzuan tratu gozorik;  
buruan etzioten, ez, utzi  
ezur bat ere osorik.

- 4 Anselmo izenekoa iltzat  
aiek utzi egurtuta,  
baiña norbaitek ura bizirik  
arkitzea gertatuta,  
“Nortzuk ziran etsaiak?”.  
“Auzoko bi anaiak”  
berak zuan aitortuta;  
Joxe ta Agustin gero barrura  
mikeleteak artuta.
- 5 Gero Zarauzko giltzape artan  
zeukaten bildur gogorra,  
lege barruan ordaintzekotan  
egin zutenaren zorra.  
Anselmo il ezker  
nola zuten espero  
biak eriotz-zigorra,  
andik igesten saiatutzea  
zedukaten derriorra.
- 6 Giltzapetikan igesitzeko  
prestaketan ziran asi.  
Zer egin zuten, kartzelazaia  
kontuan etzedin jausi?  
Ekartzean bazkaiak,  
bertako atezaiak  
Agustin zuan ikusi  
nola oean sartuta zegon  
bere txapela ta guzi.
- 7 Bazkalondoan berealaxe  
Joxek dei atezaiari:  
“Gauza txarren bat gertatzen zaio  
orain nere anaiari”.  
Sartu ta ikustean  
ain aurpegi tristean,  
“Zer nai dek?” galde berari.  
“Eman zaidazu aoko legor au  
kentzeko ainbat edari”.



8 Kartzelazaia joan zanean  
ari ura ekartzeko,  
oian txapela dotore jarri  
sartzean engañatzeko.  
Urarekin sartzean,  
bat atean atzean,  
lepagaiñean jotzeko;  
zentzurik gabe an utzi zuten  
koneju baten antzeko.

9 Aoa eta eskuak lotu  
zizkaten ari lenbizi,  
oiean sartu eta kanpoan  
iñor ote zan ikusi.  
Giltzaz itxi atea,  
ura errematea;  
danak egiñik berezi,  
atze atetik disimuloan  
abitu ziran igesi.

10 Gero lasterka aldegitoko  
bazuten abildadea,  
feria zan da ezin korritu,  
ugari baitzan jendea.  
Feritarrak galdera:  
“Zer da zuen joera?”.  
Erantzuna bai trebea:  
“Korrika apustua degu ta  
libratu guri bidea!”.

11 Korrikariak baitziran aiek  
izanak zerbait lenago,  
eta feriko jende geiena  
sinistu zuten zearo.  
Bi anai apustuan  
ain joera estuan  
zein baiño zein azkarrago;  
Azken Portuko bidean zear  
etziran mantso igaro.

12 Atezaiari tranpa eginda  
kartzelatikan atera,  
berrogei egun igaro gero  
sarturik baso artera.  
Polizonteen gisan,  
barku baten gerizan,  
bi basa-pizti batera,  
zigor-igesi aldegin zuten  
Arjentinako partera.

13 Arjentinatik gero Zarautza  
atezaiari gutuna:  
“Agur biotzez eta eskerrak,  
adiskide min kutuna.  
Zuk laguntza eginda  
genduan aldegin da  
ura zan, ura eguna,  
zure goraltzan urterik urte  
guk ospatuko deguna”.

# Gerraren igesi

(1991)

1 Ondorengoak jaso dezaten  
aurrekoen oiartzuna,  
bakoitzak utzi bearra degu  
gauza orren erantzuna,  
gai ontan kalte aundiko baita  
etena edo utsuna.  
Gertakizun bat badaukat eta,  
galdu baiño len zentzuna,  
bertso batzutan kontatu nai det  
aita zanari entzuna.

2 Milla beatzireun ogeitamasei  
iritxi giñan urtean,  
anai arteko guda piztu zan  
Españiako partean.  
Gure erriko erretorea,  
len Afrikan gerratean  
gazte-denboran ibili zana  
etsirik tiro artean,  
gero argatik gorde nai zuan  
beko basarri batean.

3 Afrikan eskarmentatu eta  
bera zalako gertatzen,  
orregatikan tiro-otsekin  
azkar asi zan kezkatzen.  
Argin-berriko basarrikoei  
jarduna zerbait aitatzten:  
“Gauren batean jungo naiz eta  
asi tokia prestatzen”.  
Bidean geldituko zanikan  
etzuan asko pentsatzen.

4 Mendi gaiñeko tiro-ots aiek  
etzuten bildurtzen gutxi,  
orregatikan nai zuan goitik  
erreka-zulora jetxi.  
Begiz jotako basarri ura  
beretzat ain leku bitxi,  
bideak galdu eta erioz  
arnasbide danak itxi,  
amestutako Argin-berrira  
etzan sekula iritxi.

5 Erretoreak gauez egin nai  
zuan bere aldaera,  
Argin-berrira bidea zeukan  
Argin baserritik bera.  
Atari artan pasa nai ez ta  
sartu zan baso aldera,  
bideak galdurik zer ote zan  
egin zuan ibillera?  
Esan liteke eriotzaren  
billa jua zala bera.

6 Arrigarri da olakoetan  
animalien adurra:  
erretorea nabaitu eta  
zaunkaz Argingo zakurra;  
eta etxeko bizilagunak  
ain pentsamentu makurra,  
zelatariak ote zebiltzan  
aiek zeukaten bildurra,  
eguna argitu bitartea  
etzuten izan laburra.

7 Bi bizitzakoa zala Argin  
agertu nai det lenbizi,  
Felix eta Anjel, alde banatan  
lengusuak ziran bizi.  
Gaueko zakur-zaunka aiekin  
kezka sorturik Felixi,  
goizez sorora irten zan eta  
gizon bat lotan ikusi,  
anka-ots batzuk atera arren  
etzuan esna arazi.

8 Felix ondoren Anjelengana  
itzuli zan doakabe,  
esanaz: "Gizon bat zegok lotan,  
laguntzen badidak obe".  
Zegon tokira inguratzean  
biak suabe-suabe,  
ilda zegola jarri ere bai  
ziurtasunaren jabe,  
baiña berriro itzuli ziran  
zein zan ezagutu gabe.

9 Epaileari berri emanez  
Anjel da Felix errira,  
mutillak artu ta denak jetxi  
gorputza zegon tokira.  
Juezak zion: "Erretorea!"  
illari emanez jira,  
angarilletan jaso Argingo  
basarriko atarira,  
ni mutikoa an egon nintzan  
zerraldoari begira.

10 Gerra ari zan gain artatikan  
babesera juatean,  
ark uste zuan beko zuloan  
biziko zala pakean.  
Eriotzaren sega gaiztoa  
an egon sasi tartean,  
etzuan iñolaz erori nai  
mamu beltzaren katean,  
igesi asi ta beragana  
juan zan bete-betea.

11 Erretorea gerra-igesi  
gauetz eta ixil-ixil,  
eriotzetik urruntzen asi  
baiña zeukan oso urbil;  
eta urrengo bera jasotzen  
ibili ziran bi mutil,  
gure errian gerrarengatik  
iru oiek lenengo il.  
Guk ulertutzen ez degun zerbait  
ezkutu ortan badabil.

12 Gerrak zer bildur ematen zion  
guk ezin degu juzgatu,  
gauetz basoan galdu ta larri,  
biotza lertu, puskatu.  
Zerbaitek estutuko zuala  
ori ezin da ukatu.  
Gauetz bidaia egiten asi  
baiña etzuan bukatu,  
etxez aldatzen asi zan eta  
azkenik munduz aldatu.

# San Miel kantak

(1991)

---

1 Ixil-ixixik zauden  
basarri maitea,  
lenengo nai genduke  
agur egitea.  
Gertatuko baziña  
naigabez betea,  
festak asi dira ta  
alaitu zaitea.

2 Ene sendi maitea,  
entzutera atoz,  
guk eginkizun auxen  
artu degu gaurkoz.  
Urteroko bixita  
egitera gatoz,  
eta zuekin ondo  
konpontzeko asmoz.

3 San Miel jaiak dira  
gaur guretzako gai,  
nai degu zarrak poztu,  
gazteak ere bai.  
Laguntzarikan gabe  
nola daukagun jai,  
zuengandik orixe  
guk lortutzea nai.



4 Aterik ate gabiltz  
soiñu ta abesti,  
gaurkoan artu degu  
orrenbeste asti.  
Gauz bat esan nai degu  
goxo eta ezti:  
oillasko biltze orren  
oituran gatozti.

5 Oitura orren berri  
ara guk otsegin,  
sendi au jakiñean  
orain geldi dedin.  
Oillasko edo diru  
guretzat da berdin,  
bakoitzak aukera du  
nai duena egin.

6 Bagenekigun lendik  
etxe ona zala,  
nunai ezta izaten  
ain esku zabala.  
Erantzuna dezute  
guk uste bezala,  
Jaungoikoak sendi au  
onetsi dezala.

7 Guk eskerrak ematen  
nai genduke asi,  
besarkada bero bat  
eskeiñi lenbizi.  
Auxen joan baiño len  
emendik igesi:  
agur biotzez eta  
ondo-ondo bizi.

# Elordi basarriko ondakiñen oroipenez

(1991)

1 Ibillaldi bat gaur egiteko  
asmoz lendikan jarria,  
txoko au aztertutzea baizan  
nik nedukan egarria.  
Nere odolaren sorleku ziñan,  
Elordiko basarria,  
teillatua lur joa daukazu,  
baita ere armarria,  
ondakiñetan arkitu zaitut,  
kabi zar maitagarria.

2 Zuregan sortu ziran aientzat  
izango ziñan berezi,  
etxe ondoan bai omen ziran  
udare, intxaur, gerezi,  
lau errotarri, lur-sailla nunai,  
ez dakit zenbat erentzi;  
ondorengoan zabarkeriz zu  
ondamendiak irentsi,  
Elordi maite, erantzun ori  
zuk etzenduan merezi.

3 Nere aitonen sorlekuari  
nik egitean bisita,  
lotsaren lotsez gelditua naiz  
nere begiak itxita.  
Arkitu zaitut teillatu-ormak  
goitikan bera jausita,  
oroigarriztat dezun pitiña  
dana sasiak josita,  
nola ez det nik negar egingo  
zu orrela ikusita?

4 Garai batean sendi bikaiña  
zugan beti jai ta aste,  
amar bat lagunen babes-toki  
eten gabe bataz beste.  
Zu zutitzean jardun ziranak  
neke eta buru-auste;  
gaur erorita egongo zanik  
iñork ez dezala uste,  
ondorengoak maitatutzera  
sor ziñuztenak ainbeste.

5 Kabi zarraren ondakiñari  
penaz begira nago ta  
ez dakit zerez erori ziñan  
edo-ta norbaitek bota.  
Ondamen onek naiz nigan sortu  
amets batzuen porrota,  
une berean alaitzen nauen  
zerbait emen badago-ta:  
oraindik zutik ikusten baidet  
Elorditarren errota.

6 Garai aietan etzan Elordi  
etorkizunik gabeko,  
bazendun zerbait zeure sendia  
aurrera eramateko:  
errota zarrak gau eta egun  
ia zenbat trakateko.  
Badago arrazoirikan asko  
zuri esker emateko,  
zure lakatik sortzen baizuten  
danak jantzi ta jateko.

7 Errota zarra, geldirik zaude,  
gaur ez da traka-otsikan,  
nik mintzatzeko ezin aurkitu  
ain une apraposikan.  
Beartsua naiz, au aitortzeko  
nik eztadukat lotsikan;  
baiña iñundik lortutzen badet  
lagundutzeko sosikan,  
gaurko antzera zutik gordetzen  
saiatuko naiz pozikan.

8 Nunbait ugari inguru ontan  
garai artan elorria,  
*Elordi* zure izena ortik  
izango zan etorria.  
Eta nik ere nere zaiñetan  
daukaten odol gorria,  
zure bitartez iritxia det  
arraza edo jatorria,  
orregatikan egiten dizut  
nere ongi-etorria.

9 Bere garaian aurdi izan zan  
Elordiren oiartzuna,  
neretzat berriz aundiagoa  
zuk utzi dezun utsuna.  
Lau belaunaldiz zugan lotzen ni,  
alaxen daukat entzuna.  
Ezer sortuko banu iñundik,  
ondo detala zentzuna,  
ziñez mintzo naiz: emango dizut  
zor dizutan erantzuna.

10 Elorditarrak ez omen zuten  
euskera beste abotsik,  
zure sendian etzan onartzen  
sui edo erraiña motzik.  
Euskera beti maiorazko zan,  
beretzat etzan morrontzik;  
basarri danak euskal giroko,  
ezer etzegon arrotzik,  
gaur ere garbi egongo ziran  
izan bagendu biotzik.

11 Zorionean ikastola asko  
gaur egun dago jarria,  
alaxen ere gure izkuntzak  
dauka erio larria,  
jende askotxok nola dadukan  
erderaren egarria.  
Millaka urtez euskeran arnas  
izan zeran basarria,  
galdu-zorian zu ikustea  
ez al da negargarria?

12 Elordi, zure orma-kondarrak  
agurtzen ditut eztiro,  
zure igaroa ausnartutzean  
barruan ez daukat giro.  
Lenago enbor eze ziñana  
orain igar edo iro,  
abitutzera noa emendik  
baiña geldiro-geldiro;  
banoa, baiña bisitatzera  
itzuliko naiz berriro.

# Zuloko larritasunak

(1991)

---

1 Koba-zulo bat zegon  
txaraka artean,  
nere bizilekutik  
ez ain apartean;  
sartu banintzan sartu  
ni aren atean,  
gero bere barruan  
aurrera joatean,  
argi gabe gelditu  
nintzan bat-batean.

2 Naiz saiatu linterna  
konpontzen ote zan,  
etzan piztutzen eta  
dana zegon beltz an.  
Ateratzeko nola  
esperantzik etzan,  
zutik egon ezinda  
egin nintzan etzan,  
itzez ezin agertu  
une ura zer zan.

3 Norantza abiatu  
erabaki ezin,  
ezker eta eskubi  
dana zegon berdin.  
Laguntzik gabe andik  
nik nola aldegin?  
Belauniko jarrita  
nuan otoitz egin,  
komeni bazan beintzat  
onez irten nedin.

4 Egin arren garraxi  
eta deadarra,  
iñundik ezin entzun,  
ura zoritxarra!  
Biotzak etsipena,  
begitan negarra,  
samin danen gaiñetik  
nedukan bakarra:  
nere senditik urrun  
ala il bearra.

5 Ni etsipenak jota  
an nengon linbuan,  
barrengo naigabeak  
ezin arinduan,  
bakardade gaizto ark  
bildurtzen ninduan;  
dei ixil batek eman  
zidan aginduan,  
abitzeko prestatu  
nintzan eriuau.



6 Eta erasotzean  
jira eta bira,  
uste gabe urbildu  
ateko argira;  
lasterka irten nintzan  
andik atarira,  
ta izan zutelako  
santuak kupira,  
eskerrak eman nitun  
zerura begira.

7 Barrura naiz ta sartu  
itxaropen aundiz,  
gero damutu nintzan  
makiña bat aldiz.  
Atariko argia  
ikustean begiz,  
bertan zin egin nuen,  
aitortzen det egiz,  
ez nintzala sartuko  
zulo artan berriz.

8 Kueban nola egon  
nintzan ni etsita,  
gorputz guztia neukan  
zearo autsita;  
etxera itzultzean  
zuloa utzita,  
pertonaren itxura  
neukan ain gutxi ta,  
andrea larritu zan  
ala ikusita.

9 Andreai esan nion  
nere gertaera,  
entzutean onela  
mintzatu zan bera:  
“Suertez izan dezu  
irteteko era;  
orain nekaturikan  
arkituko zera,  
eta atsedentzeko  
juan zaitez oera”.

10 Oeratu orduko,  
lenak eragiñez,  
ni ametsetan asi  
eta itzegiñez,  
santueiri eskeintza  
aundiak egiñez;  
andreak entzutean  
esan zidan ziñez:  
“Gauz danak santuentzat?  
Ori beñepiñ ez!”.

11 Santuekin astean  
ni tratuan trebe,  
dirutzak aginduaz  
salbatutze alde,  
andreak esan zidan:  
“Burutik al zaude?  
Santuak egitekoz  
gure gauzen jabe,  
zu bertan gelditzea  
ez ote zan obe?”.

12 Kueban jasan nuen  
estutasun beltza,  
artatik sortu neri  
geroko ametsa;  
santuei eskeintzean  
diru eta meza,  
andreak albotikan  
aguro ezetza,  
zein duen maiteena  
orain zuek pentsa.

# Gerra ondoko urteak

(1991)

---

1 Gerra-ondoren danak  
erri baten jiran  
zein gogorrek diran!  
Aian ere orduan  
naiko lan baziran.  
Urte bat etzan txarra,  
mordoa segiran,  
sinisteziñak daude  
orduko kondairan.  
Orain konta nai ditut  
zer gertatu ziran.

2 Len eta orain beti  
gerra-ondorenak  
garai gogorrenak;  
berdin jarraituko du  
gero datorrenak.  
Sarritan ondatuaz  
gizon jatorrenak,  
bekoari egurra  
goien dagoenak,  
errikoak ez dira  
izaten onenak.

3 Ogei ta amaseia  
aitatu bearako,  
guda bat zalako;  
oroitzen naiz, ondoren  
latzak ziralako.  
Errian iru gizen,  
beste danak plako,  
danen parte aiek  
jaten zutelako;  
jendeak jasan zuan  
mixeria pranko.

4 Orduko gizon aiek,  
nere iritziko,  
erruki gutxiko;  
basarritarrai ainbat  
kendu lenbiziko.  
Etxerako garirik  
ez urte guziko,  
zuten pixka egotzen  
etzien utziko,  
bestela errotarik  
etzuten itxiko.

5 Garai artan geienak,  
kale ta basarri,  
estu eta larri,  
lege bat zegolako  
gure kaltegarri.  
Prezintatu zituzten  
ainbat errotarri,  
alirik irinduta  
gero ezin jarri;  
egin zuten amaika  
gauza lotsagarri.

6 Errotak itxitzeko  
naiz izan indarra,  
zaintzea lan txarra;  
zakur beltzak zeukaten  
gose bat bakarra.  
Laster konturatu zan  
errotari zarra:  
“Oieri jaten zegok  
luzatu bearra;  
eta gero alea  
ego barra-barra”.

7 Errotak itxitzea  
gauza itsusia,  
ura justizia!  
Baiña errotariak  
zeukan ikusia:  
jatea guardien  
amets nagusia;  
lendabiziko ase  
aien kutizia,  
gero errotan ego  
nai zuen guzia.

8 Nolako lege gaiztoz  
zeukaten erria  
goitikan jarria:  
animaliei ere  
zerga ezarria.  
Beti ondo zaindutzen  
zailla basarria,  
bertan asmatu zuten  
sistema berria:  
kurrinka-otsik gabe  
iltzen zan txerria.

9 Basarritik zenbat gauz  
ziran eramanak,  
derriorez danak;  
etxerako osatzen  
gero naiko lanak.  
Ala esaten zuen  
Eusebio zanak:  
“Iru zerri ituan  
onaurkiak janak,  
basarritarren kontu  
gizendu ziranak”.

10 Nik inoiz ez det jarri  
ain gauza ziurrik,  
or ezta gezurrik:  
jaten ezin nekatu  
guk matrail-ezurrik.  
Galtza-ipurdietan  
bazegon zimurrik,  
eta okotz azpian  
alako zintzurrik;  
orduan etzegoen  
gizendu bildurrik.

11 Orduko jauntxo aien  
barrengo mamua  
dana ondamura;  
jende xeari kentzen  
beren mantenua.  
Oientzat baldin bada  
zeruko erreinua,  
zeinrentzako egiña  
dago inpernua?  
Geiago esan gabe  
ixiltzera nua.

# Loiolako Inazio Santuaren bizitza

(1991)

---

1 Milla ta bederatzireunekin  
larogei ta amarrean,  
urte ontako otsaillaren  
asiera samarrean,  
jarri diguten gaiari nago  
zerbait esan bearrean;  
bertso batzuek jarriko ditut  
lengo oitura zarrean,  
Inazioren izen aundiak  
jarrai dezan indarrean.

2 Bertsoen gaia bikaiña da ta  
ezin det utzi iñola,  
beroturikan jarritzen baita  
euskaldun baten odola,  
kristau bezela ikusten baidet  
bearturikan nagola;  
ondorengoai gauz onen berri  
eman bearra dagola,  
ain sonatua zerk egin zuan  
Azpeitiako Loiola.



3 Aseratikan artu dezagun  
kondaira orren aria,  
Loiola ori gertatu baizan  
Inazioren kabia;  
amairu anai-arreba ziran,  
ain zan sendi ugaria;  
aita zan Beltran deitutzen zana,  
ama Santxeztar Maria,  
ta ama orrek Iñigo zuan  
azkeneko oparia.

4 Senide danen izenen berri  
eman bear det lenengo:  
Juan ta Martin, Beltran da Otxoa,  
gero Ernando ta Pedro;  
Juanixa eta Madalena  
bi arreatxo urrengo,  
besteak Petronila ta Santxa  
beatzi ta amargarrengo,  
ta Inazio munduratu zan  
danetatik azkenengo.

5 Amairu senideen berria  
eman det lendabiziko,  
baiña amaika izen bakarrik  
ditut adieraziko.  
Beste bi anai baziran baiño  
aiek gertatu sasiko;  
aien izenik ezta agertzen,  
nonbait etziran graziko,  
izen berriak asmatzen orain  
ni ere ez naiz asiko.

6 Utzi nai nuke Inazioren  
sendiko berri emanik,  
amairu anai-arreba ziran  
bera gazteena izanik.  
Ezta arkitzen orren bizitzan  
bere amaren aztarnik,  
ori azi zan inude bati  
bere bularra edanik,  
eztu ematen aurtzaro artan  
zoriontsu izan zanik.

7 Maria Garin gertatua zan  
Inñigoren inudea,  
bularra eman bazion ere  
bere ama ez ordea.  
Orregatikan gerta zitzaion  
azera doakabea,  
aur batentzako ama izaki  
gozamenaren labea,  
ala bearrez Inñigo degu  
zorion ori gabea.

8 Loiolakoen sendiak zeukan  
Oñaztarraren odola,  
ta ikusten da ondasun asko  
beren mendean zegola:  
baserri, mendi eta basoak,  
etxe, errota ta ola.  
Apaltasunez ezin azaldu  
zitezken aiek inñola,  
jende aundizki eta jauntxoen  
kabia baitzan Loiola.

9 Iñigo ortxe bizi izan zan  
iñudearen onduan,  
amaika jolas egingo zuan  
Loiolako inguruan.  
Maiorazko ta senide gazte  
anai Martin zan orduan,  
orren semeak eta Iñigo  
ziran senide moduan,  
banatutzera iritxi ziran  
urte batzuen buruan.

10 Aita Beltranen ikuspegia,  
kondairak jartzen digunez,  
oso kezkatu arkitutzen zan  
Iñigon etorkizunez.  
Arévalo-ko jauregi artan  
aideak bazituan ez,  
Iñigo artuko ote zuten  
galdetutzean gutunez,  
poztu zan aita Arévalo-tik  
baiezkoa erantzunez.

11 Arévalo-ko etxe koandrea  
izanik senitarteko,  
Beltranek esan zion semeai:  
“Zoaz, aspertu arteko;  
an ere emen bezelaxe zu  
zaituzte danak maiteko”.  
Eta Iñigo mutil gaztea,  
amaseiren bat urteko,  
aitak esaten zion bezela  
gertu jarri zan juteko.

12 Abitzeko prest jarri zanean,  
aitak, joanik ondora,  
besarkatuaz agurtu zuan  
penetan eta gustora,  
bizi berrian nola jokatu  
ekarri zion gogora.  
Bidean igaro eta gero  
bost eguneko denbora,  
alako baten iritxi ziran  
dalako Arévalo-ra.

13 Arévalo-ko arrerarekin  
etzuan, ez, gutxi goza,  
etxeko gisan amairugarren  
senidetza zuan osa.  
Iruditurik toki berria  
bizileku aproposa,  
bere barruan sortu zitzaizkan  
arantza eta arrosa:  
lengo kabia uztean pena  
eta berriaren poza.

14 Arévalo zan aundizkientzat  
oso toki atsegiña,  
noiznai bertara joaten ziran  
errege ta erregiña.  
Iñigok ere barruan zeukan  
aundi joerako griña,  
tarte artako aingeruekin  
sorturikan maite-miña,  
bearbada an lortuko zuan  
lenago amets egiña.

15 Aitak propio bialdu zuan  
ango aideen tartera,  
bururaturik egunen baten  
sartuko zala kortera,  
semearengan ikusi nairik  
aginpideko kartera.  
Olakorikan gerta baiño len  
aita joan zan lurpera,  
azken arnasa eman baitzuan  
andikan iru urtera.

16 Jaioterria bisitatzea  
Iñigori atsegin da,  
iñauteritan bein etorri zan  
aien berri bazekin da.  
Bere izena zikindu zuan  
narraskeriak eginda,  
korrejidore orduan zanak  
auzitara otseginda,  
zigor artatik igeskatu zan  
Kastillara aldeginde.

17 Gero Arévalo-n jardun ondoren  
ikasi eta ikasi,  
duke batentzat serbitzuetan  
andik aurrera zan asi.  
Iñigorentzat arma-kontuak  
nola zuten ainbat grazi,  
bein Iruñako burruka artan  
ura ere antxe nasi,  
an egin zuan guda bat galdu  
ta bestea irabazi.

18 Eta Iruñan frantzesen aurka  
guda latz artan asita,  
an utzi zuan bala txar batek  
anka-ezurra autsita.  
Egun batzutan bertan eduki  
ilko ote zan etsita,  
gero etxera ekarri zuten  
obe zala iritzita,  
noizbait Loiola iritxi ziran  
baiña latzak ikusita.

19 Sendatutzeko etxean jarri  
ta berriz miña asirik,  
sendagilleak konpondu zion  
berriro anka autsirik.  
Etzala geio zutik jarriko  
gelditua zan etsirik,  
gau eta egun oiñazez lertzen  
alako penitentzirik,  
ain bulartsua bera zalako  
ura irten zan bizirik.

20 Oean zeuzkan ordu luzeak  
aixago igaro zitzan,  
zaldun-liburu batzuen eske  
etxekoeri asi zan.  
Ala bearrez aietakorik  
etxe orretan ez izan,  
besterik ez ta santu-bizitzak  
irakurtzera jarri zan,  
eta orduan konturatu zan  
zeramakian bizitzan.

21 Santu-bizitzak irakurri ta  
ausnartu zituanean,  
burruka latza sortu zitzaion  
gogoaren barrenean,  
zein bide artu etzekiela  
alako zoramenean;  
eta azkenik zeinetatik jo  
erabaki zuenean,  
abitzeko prest jarria zegon  
zerbait sendatu zanean.

22 Loiola artan ikusirikan  
oso etorkizun motza,  
agur egiñaz utzia zuan  
aundikerien morrontza,  
berotu nairik bere barruan  
zedukan sinismen otza.  
Arantzazura jun da egiña  
lau eguneko aitortza,  
une artantxe pakeratu zan  
Inazioren biotza.

23 Arantzazutik Arévalo-ko  
bidean gero atera,  
mando gaiñean jun zan aruntza  
denai agur egitera.  
Andik Manresa aldera irten  
beste batzukin batera,  
egun batzuen ondoren gero  
eldu zan Monserrat-era,  
maitasun guztiz ango Amari  
besarkada ematera.

24 Monserrat artan jarri zan gero  
sinismena indartuta,  
jango bazuan eskatutzera  
arkitzen zan beartuta;  
peregrinaren izena zegon  
biotz askotan sartuta,  
Jerusalen da Erroman miñez  
zeukan biotza lertuta,  
bide ortantxe irten zan gero  
itxas-ontzia artuta.

25 Erromaraiño eldu zan gero  
bidaia artan barrena,  
auspezturikan agurtu zuan  
Adriano seigarrena.  
Jerusalena joateko naia  
agertu zion aurrena,  
peregrinaren bidai-txartela  
eskatu zion urrena,  
Aita Santuak bai eman ere  
txartela eta baimena.

26 Erromatikan Beneziaara  
peregrina jun zan oiñez,  
baiña portua itxita zegon  
izurrian eragiñez.  
Inigorentzat zer buru-auste,  
noiz irtengo zan jakin ez!  
Bi illabete an ibili zan  
bertan eskean egiñez,  
Jerusalena noizbait eldu zan  
sinismenak eragiñez.



27 Sinismen beroz lur santu artan  
murgildua zan Iñigo,  
toki santuak bixitatuaz  
danak astiro-astiro.  
Konbentu baten gelditu nairik  
saiatu arren bizi-  
zuzendariak eziña zala  
agertutzean garbiro,  
Italin zear Barzelonara  
itzulia zan berriro.

28 Inaziogan iruditurik  
kristau-bide segurua,  
jarraitzailleez betea zeukan  
beti bere ingurua.  
Ondamendian ikusirikan  
aldi artako mundua,  
gizon guztiak laguntzearren  
irabazitzen zerua,  
garai artantxe egiña zuan  
gogo-jardun liburua.

29 Apaizgintzaren ametsarekin  
burua asirik nasten,  
berealaxe eraso zion  
bear ziranak ikasten.  
Santutasun da jakindurian  
gogotik ari zan azten,  
ta zekiana saiaturzen zan  
besteeri irakasten,  
ola zijoan Lagundirako  
biotz asko irabazten.

30 Barzelonatik Alcalá-ra ta  
gero Salamankan sartu,  
ango elizan zuzendariak  
bera etzuten onartu,  
nastutzaille bat iruditurik  
kartzelatzera beartu.  
Andik askatu zuten garaian  
Parisko bidea artu,  
burruka artan gure Iñigo  
etzuten gutxi indartu.

31 Salamankatik Parisa gero  
apaizgintzako pausotan,  
lagun batzuek ala zioten:  
“Zertan ari aiz gauz ortan?”.  
Xabierreko Frantzisko zan bat  
aundi-ametsen asmotan,  
baiña Iñigok ematen zion  
erantzun auxen askotan:  
“Munduan jabe zertako egin  
anima galdutzekotan?”.

32 Xabierkoak ezin onartu  
peregriniaren esanik,  
baiña Iñigo berean beti,  
ark etzeukan etsipenik,  
etzion kentzen kontzientzia  
zulatzen zion eztenik.  
Aundinai eta munduakiko  
lokarri danak etenik,  
Frantzisko ere bere taldera  
ekarri zuan azkenik.

33 Paris aldean Iñigo zegon  
tripa-miñez ta gaixorik,  
naiko auldua arkitutzen zan  
burua ezin jasorik.  
Sendagilleak gaitza aztertzen  
ain gogotsu erasorik,  
ark esan zion beste iñori  
ez egiteko kasorik,  
sendatutzeko etzala ezer  
sorterri bezelakorik.

34 Paristik irten da zetorrela  
bere sorterri artara,  
Andatz-zaraten gautu zitzaion  
da ezin joan bertara.  
Iritxitzean sartu egin zan  
Iturriotzko bentara,  
zerbait artu ta bildu zanean  
gela barrura lotara,  
azpeitiar bat giltza-zulotik  
juan zitzaion zelatara.

35 Zelatariai zein zan galdezka  
gero etxekoandrea,  
ark esan zion: "Au da Iñigo,  
ia nere senidea,  
neronen ama izan baizuan  
orrek bere iñudea".  
Zelatariaik gero arturik  
Azpeitirako bidea,  
ark jarri zuan berri emanda  
Loiolan zegon jendea.

36 Anai Martiñek jakin orduko  
Iñigo bidean zala,  
bere bi morroi zaldun bialdu  
zituan ark bereala,  
esanaz ura Loiolaraiño  
ekartzeko nola-ala.  
Baiña Iñigo nola zetorren  
eskaleko bat bezala,  
Loiola utzi ta artu zuan  
Santa Ana ospitala.

37 Bere errian eskean asi  
etxez-etxe peregrina,  
eta tartean txikitxoeri  
erakutsitzen dotriña.  
Bertako eliz ta ermitetan  
ainbat itzaldi egiña,  
bide onera danak ekartzen  
egin zuan alegiña,  
inguru dana penaz utzi ta  
zan ortikan aldegiña.

38 Martiñen emazteak Iñigo  
beti maitea izana,  
ospitalean abisu auxe  
zion beingoan emana:  
bixitatxo bat egin zezala  
bere sendikoengana,  
Kristoren Nekaldian izenez  
eskatzen ziola dana.  
Kristogatikan joan egin zan  
bestela jungo etzana.

39 Azpeitiatik gero irten zan,  
oitura zuen antzera,  
Españin zeuzkan jarraitzailleak  
maiteki bixitatzera;  
Balentziatik gero itxasoz  
Italiako ertzera,  
Beneziara iritxi nairik  
emanda zegon itzera,  
Paris aldetik zetozen lagun  
maite aiekin biltzera.

40 Benezian lan egin ondoren  
ara zer zuten urrena:  
Iñigo bertan gelditu eta  
Erromara talde dena.  
Aita Santuai agertutzean  
zer zan guztien naimena,  
bat eskatu ta bi gauza eman  
nola zedukan almena:  
Jerusalena joateko ta  
apaizetako baimena.

41 Beneziara itzuli ziran  
guztiak alaitasunez,  
Iñigo ere ala jarri zan  
aien berriak entzunez.  
Gotzaiangana jun ziran denak  
sinismen da maitasunez,  
eta Gotzaiak, Aita Santuan  
aginduak erantzunez,  
apaiz eginda jarri zituan  
aiek San Juan egunez.

42 Apaizetara iritxi arren  
Lur Santura jun eziña,  
gerra-bildurrez gelditu baizan  
itxas-ontzi peregrina.  
Gaiñontzekoak banatu ziran  
iri bakoitzera biña,  
Iñigok berriz beste birekin  
Erroman zion ekiña,  
gero bertara danak biltzean  
izan zuten zer egiña.

43 Gero Erroman beren lan artan  
buru-belarri sarturik,  
nai zuten ura lortutzekotan  
ala zeuden bearturik.  
Zeru-doaiez gauzak aztertzen  
talde dana alkaturik,  
bear zituzten arauak eta  
erabakiak arturik,  
Jesusen Lagundia alaxen  
jarri zuten autaturik.

44 Iñigok gero araudi dana  
bukatuta zeukanean,  
Aita Santuai aurkeztu zion  
taldearen izenean.  
Batikanoko epailariak  
txartzat bota zutenean,  
Iñigok berriz guztiz kementsu  
erasorikan lanean,  
Lagundiaren legeztatzea  
lortu zuan azkenean.

45 Orduan Paulo irugarrena  
Aita Santu zan Elizan,  
ta Lagundia bere esana  
betetzekotan jarri zan.  
Mundu guzira banatu ziran  
agindu zieten gisan,  
Iñigo berriz bertan gelditu  
Lagundian gidaritzan,  
Erromatikan etzan atera  
geroztikako bizitzan.

46 Jerusalem juteko irrikaz  
Iñigo apaiz egin zan,  
ala bearrak uko eginda  
etzuan juterik izan.  
Gero Erroman bere ametsa  
bete naiean asi zan,  
ta Lagundia gorpuztu zuan  
pentsatuta zeukan gisan,  
meza berria eman ere bai  
Santa Mariko elizan.

47 Guztien buru zegon Iñigo,  
ain zan apal da gozua,  
era onean artutzen zuan  
etsai danen erasua.  
Ikastetxe ta Erruki-etxe,  
danetik zuan jasua,  
erdi itzali zegon Elizan  
pizturik garra ta sua,  
besteren alde ark eman zuan  
bere bizitza osua.

48 Milla bosteun da berrogeikoan  
Lagundia zan atera,  
Kristoren itza zabaldu nairik  
sinisgabeen artera.  
Batzuk jun ziran Asiara ta  
Indietako partera,  
eta Iñigo bertan lanean  
Lagundiakin batera,  
bere bizia bukatuko zan  
andik amasei urtera.

49 Milla lareun da larogeiarekin  
amaikagarren urtean,  
Iñaki Deuna sortu zitzaigun  
Azpeitiako partean.  
Ainbat burruka egin zuana  
bizirik zan bitartean,  
azken arnasa ark eman zuan  
Erroman auzo batean,  
irurogei ta bost urterekin  
sartua zuten lurpean.

50 Danak bezela Iñigo ere  
zan aragizko gizona,  
gaztea zala konbertitua,  
bitartean etzan ona.  
Peregrin gisa ibili zana,  
kartzelan aldiz egona,  
Luterok Erromari kendua  
berriz biurtu ziona,  
Kriston aitorle izan zalako  
santu eginda dagona.



51 Inazio bai santuen maillan  
goien jarritzen dutela,  
baiña ikusten da santuak ere  
akatsak badituztela;  
ta Inaziok zuen onekin  
ni bai arritzen naizela:  
ezta agertzen sorlekuagan  
maitale sutsu bezela,  
Euskal-Errira sarriagotan  
etorriko zan bestela.

52 Lenago ere zatiketa zan  
Euskadin gaitz printzipala,  
eta gaur ere ikusten degu  
berdin-berdin gabiltzala.  
Iñaki Deuna nola daukagun  
ain zaindari serbitzala,  
gure eskari eta oiua  
zerutik entzun ditzala,  
eta euskaldun danok baturik  
lenbailen jarri gaitzala.

# Erretorea eta sankristauba

(1991)

---

1 Gertaerak naiz izan  
zati bat lizuna,  
txukun kontatzea det  
nik eginkizuna,  
irakurle, zuk ere  
ongi dakizuna.  
Goibeldurik bazaude  
komeni zaizuna,  
zerbait parre eragin  
aziko dizuna.

2 Iru pertsonentzako  
nik orain oore,  
eliz-lanetan izan  
zutenak adore:  
on Jose apaiza zan  
erriko erretore,  
Pello sankristautzan  
txukun da dotore,  
eta bere andrea  
bertako serore.

3 Irukotea txintxo  
beti aste ta jai:  
on Jose, sankristaua,  
serora ere bai;  
erria serbitzeko  
irurak ziran gai,  
gozo-gozo artuaz  
arreba ta anai,  
iñor zapuzterikan  
aiek etzuten nai.

4 On Jose egunero  
meza ematera,  
beste biak ere bai  
arekin batera.  
Eliz-lanak eginda  
andikan atera,  
beren etxeetara  
zerbait egitera;  
orrelaxe zijoan  
aien bizikera.

5 On Jose gertatu zan  
amar urtez-edo  
amatxoren ondoan  
antxe bero-bero,  
jaki goxoak jartzen  
zizkan egunero.  
Baiña sortu zitzaion  
naikoa endredo,  
gauzak aldatu ziran  
ama il da gero.

6 Apaizak ikusirik  
bere bizikera,  
danerako bakarrik  
goizetik gaubera,  
gero Pellori egin  
zion eskaera:  
“Andrearekin zatoz  
zu nere etxera,  
emen bizi gindezke  
irurok batera”.

7 Tratuan irixtean  
bear zan puntura,  
jun ziran apaiz-etxe  
edo komentura,  
bizitzeko asmotan  
apaizan kontura.  
Ustez sartuagatik  
ain toki santura,  
gero sortu zitzaien  
naiko abentura.

8 Pello meza danetan  
eskean jaiero,  
On Josek txanpon asko  
zakutik espero;  
batzutan gutxi xamar  
agertuta-edo,  
apaizak bazituan  
milla errezelo,  
sankristaua jotzen  
zuan litxarrero.

9 On Jose ta serora  
arreman gozoan  
zebiltzalako marmar  
jendeak auzoan:  
sankristaua berriz  
naiko arazoan,  
andrearekin zegon  
zalantza osoan,  
eroritzen asia  
ote zan lazoan.

10 Apaizak Pellori au  
esaten zion maiz:  
“Aitortzera kanpora  
zergatik juten aiz?  
Oraintxe dek aukera  
Pazkoazko garaiz,  
aurtengoan nigana  
etorriko al aiz?”.  
Pellok erantzun zion:  
“Biar juango naiz”.

11 Esan bezela biak  
biaramonian  
aitortza asi zuten  
ixiltasunian;  
apaizak galdetuaz  
era legunian,  
beste aginduetan  
jasan ziranian.  
zirikatzen asi zan  
zazpigarrenian.

12 On Josek esan zion:  
“Au galde nai nizun:  
elizako zakutik  
zerbait ostu dezun”.  
Aitorleak onela  
berari erantzun:  
“O, erretore jauna,  
ez dakit dakizun  
zure itzik emendik  
ezin dala entzun”.

13 Itz auek irten gero  
apaizan aotik:  
“Nik baietz dana entzun  
jartzen banaiz ortik”.  
Eta Pellok erantzun  
sarean ondotik:  
“Tokiz alda gindezke  
ez badio inportik:  
ni jungo naiz barrura,  
zu jarri kanpotik”.

14 Burutu zutenean  
beren aldaera,  
Pellok onela egin  
besteai galdera:  
“Nere andrearekin  
zer ibiltzen zera?”.  
Apaizak erantzuna  
lengoaren bera:  
“Ez det entzuten eta  
goazemak etxera”.

15 Naiz zala sankristauba,  
naiz zala abade,  
alkarren errezeloz  
zeuden parez-pare,  
aitortzatik egin nai  
sekretoen jabe.  
Biak itzuli ziran  
naiko doakabe,  
jakin nai zuten gauza  
ura jakin gabe.

*(1991-ko Basarri bertso-paper  
leiaketan bigarren saria irabazia.)*

# On Jesus Gaztañagaren oroimenez

(1992)

---

1 Guzaldunak nere zentzuak  
ondo argitu ditzala,  
berri txar batek sartua baidit  
berebiziko itzala;  
eliz-lan eta Euskerazaintzan  
alain gizon serbitzala,  
egunkarian irakurtzean  
Jesus apaiza il zala,  
bene-benetan aitortutzen det  
gutziz goibeldu nintzala.

2 Errezildikan norabaitera  
irtenik bazkaldonduan,  
bere biotzak *zart* egin nonbait  
Benta-aundi inguruan;  
ertzain batzuek arkitu gero  
erdi illaren moduan,  
aiek artu ta gaixotetxera  
eraman zuten orduan;  
lagun maite ark bere azkena  
ara nola izan duan.



3 Bere illetak ospatu ziran  
otsaillaren batean,  
ara zer gauza ikusi nitun  
Errezillera joatean:  
eliz barruan jendea gaiñez  
eta berdin elizpean,  
gure gotzaia meza-emale  
apaiz ta praille artean;  
illeta ori etzait aztuko  
bizi naizen bitartean.

4 Jendearentzat obe bearrez  
illeta jarri zan garaiz,  
aldare-jiran gotzaiarekin  
eun da berrogei bat apaiz;  
eliza ortan jendetza ori  
etzan, ez, gertatuko maiz,  
beste oinbeste or ikustera  
iñoiz iritxitzen banaiz,  
litekeana dala badakit  
baiña ni arrituko naiz.

5 Illeta ortan meza santua  
amaitu ta beriala,  
ikusitzean gorputzarekin  
andik abitzen zirala,  
elizar danok agur ta agur  
jardun giñan egiñala.  
On Jesus maite, sinistu zazu  
penaz gelditu giñala,  
il eta gero konturatzean  
zu ain aundia ziñala.

6 Apaiz jatorra, euskaldun ona  
eta idazle abilla,  
egintzetatik neurtutzen baita  
batek izan duan mailla;  
liburu eder bat egin berri du  
izenez *Jesusen billa*,  
badakit orain joana dala  
Jesus bat Jesusen billa,  
nik opa diot bere ondoan  
gozatzen gerta dedilla.

7 Gaztañagaren azken agurra  
ezin kendu det burutik,  
zein samiña dan gauza maite bat  
urruntzea ingurutik;  
guri begira orain an dago  
oso leku segurutik,  
eskari auxe egiten diot  
biotzan barru-barrutik:  
sinismen eta euskera zaintzen  
lagun deigula zerutik.

# Askatasun- -egarría

(1992)

1 O. Euskal-Erri. sarri egin det  
zurekiko esamiña,  
ta azterketa orren ondoren  
beti sortzen zait samiña.  
Gizaldietan darabilkizu  
bururik jaso eziña,  
naiago nuke beti-betiko  
aske jarriko baziña.

2 Sorleku maite, ematen dizut  
sendi nastuen tankera,  
guraso eta seme-alabak  
bildu eziñik batera.  
Zatitu eta emaitz onikan  
ezin liteke atera,  
oien etxea beti beraka  
doa urtetik urtera.

3 Euskaldun maite, sendi bateko  
gerala danok jakiñik,  
nolaz gabiltza ezker-eskubi  
batera bildu eziñik?  
Batasunean dago indarra,  
ez dago orren berdiñik,  
ortara irixten ez bagera  
ez daukagu zer egiñik.

- 4 Euskal-Erria senda liteke  
ustelkerian gaitzetik,  
baiña ortarako otso gaiztoak  
bialdu bear etxetik;  
ardi galduak larre gozora  
atera baso beltzetik,  
talde batean jarrai dezaten  
artzai onaren atzetik.
- 5 Euskaldun danok sortuak gera  
alakoxe goi-eskerrez,  
eta pozikan egon gindezke  
dauzkagun doai ederrez,  
Baiña bidaian ezberdin goaz  
eskubiz eta ezkerrez,  
batera joaz zerbait giñake,  
zatitu eta ezer ez.
- 6 Sorlekuaren kezketan asko  
dagoela ematen du,  
mintzoan ere erri-min ori  
gaur ainbestek agertzen du.  
Baiña egizko batasunera  
ezin iñolaz zuzendu,  
nik baietz diot Ama Euskera  
benetan maite bagendu.
- 7 Euskal sendian seme guziok  
gera gerekoi setatsu,  
Ama maitea, ainbeste seme  
zatiturikan gauzkatzu,  
bakoitzak geure burua jotzen  
naiko aundi ta indartsu;  
orregatikan zeure senditik  
asko galduta dauzkatzu.

8 Euskal arraza zerbaitegatik  
beti izan da sonatu;  
gaitz txar bat degu: ezin gerala  
sekulan alkarganatu.  
Batu-itxuran asi orduko  
zatitu eta banatu,  
ondamuaren mamu gaiztoak  
oi gaitu sakabanatu.

9 Gure erri au gizaldietan  
uztarripean izan da,  
eta sarritan geure errua,  
negargarria ez al da?  
Bidean gogor ekin deiogun  
gainditu dezagun malda,  
danok aurrera jarrai dezagun  
alkarri esku emanda.

# Pakearen aldeko gurutz-bidea

(1992)

1 Egintza on bat kontatutzea  
neretzat ain da atsegin,  
gertatutako gai bati buruz  
orain nai nuke itzegin.  
Zarautzko artzipreste-barruti  
ortatik zuten otsegin,  
ostiral santuz gurutz-bide bat  
bear genduela egin,  
Euskalerrria pake santura  
berriro biurtu zedin.

2 Gurutz aundi bat jaso asmotan  
Iturriotztikan gora,  
ta Zelatuna iritxitzean  
artzai-txabolan ondora,  
ordurako an egoteko zan  
irratiko emisora;  
gurutz-bidea egiñez gero  
danak andik Erniora,  
baiñan etziran ondo portatu  
giroa eta denbora.

3 Gora-bidearen ezezkoa  
erabaki zan orduan,  
gurutz-bidea prestatu zuten  
Iturriotzko onduan.  
Bere garaian an bildu giñan  
esanda zegon orduan,  
ibillaldia, otoitz ta kantu  
guztiok egin genduan,  
aurrerantzean pake geiago  
izan dezagun munduan.

4 Zoritxarrean gorroto eta  
aserretik gaude gordin,  
paketu bitez etxe, erriak  
eta mundu dana berdin,  
sasiak kendu ta ingurua  
biurtu dezagun jardín.  
Orretarako kristau bezela  
bear degu otoitz egin,  
zakartutako itxaso ori  
betiko baretu dedin.

5 Inbiri eta gorrotoari  
itxi deizkagun ateak,  
autsi ditzagun zapalkuntzaren  
uztarri eta kateak.  
Bukatu bitez indarkeriak,  
baita ere gudateak;  
alperrik dira arma guztiak,  
misillak eta tankeak,  
maitasunean oiñarrítua  
izan bear du pakeak.

# Zorioneko udaberria

(1992)

---

1 Negu beltzari bizkar emanda  
irrikaz nago jarria,  
ase nairikan biotz-barruan  
senti dedan egarria.  
Zelai guztiak loraz jantzita;  
zer gauz lilluragarria!  
Zorionean iritxi zaigu  
begiko udaberria,  
beso-zabalka eman deiogun  
danok ongi-etorria.

2 Gizatasunez jartzen bagera  
gure lurrari begira,  
arantza latz bat sartuko zaigu  
biotzan erdi-erdira.  
Gorrotoaren odei illunak  
nunaitik agertzen dira,  
batasunezko pake eder bat  
baletor Euskalerrira,  
orduan aldatuko giñake  
negutik udaberrira.



3 Zugaitz gaiñetik kantari daude  
birigarro ta zozoak,  
samindutako biotz oientzat  
zeiñen abesti gozoak!  
Gaiñera alaitutzen dituzte  
mendiak eta basoak,  
uxa bitzate gure artetik  
gorrotozko erasoak,  
pake-giroa gozatu dezan  
gure Euskadi osoak.

4 Maitetasuna jarri dezagun  
egintza danen zutabe,  
alkar serbitzen asi gaitezen  
danok goxo ta suabe.  
Gorroto orrek sortzen dizkigu  
makiña bat atsekabe,  
ainbeste gizon sakabanatu,  
ainbat sendi doakabe,  
beti neguan bizi diranak  
udaberririkan gabe.

5 Euskalerrria kezkatu dago  
arma zarren tiro-otsez,  
ta indarkeriz gertatzen diran  
orrenbeste eriotzez.  
Borondatezko gizon guztioi  
deitzen dizutet biotzez,  
lanean gogor jarrai deiogun  
askatasunaren gosez,  
zorioneko udaberria  
etorriko zaigun pozez.

# Altzolako billera

(1992)

- 1 Urte ontako ekaiñean  
eta San Pedro bezperan,  
Aia erriko Altzola auzoan  
nola gozatuak geran!  
Bertako seme-alaba danak,  
aurrez esandako eran,  
bai zoriontsu izan zirala  
egun ortako billeran!
- 2 Altzola orrek seme bat nunbait  
apaiz egiña bazuan,  
bertan biltzeko amets egiñez  
zegona bizi osuan.  
Ango elizan, igande ortan,  
eta euskera gozuan,  
On Ramon Aginagak lagunduz,  
meza berak eman zuan.
- 3 On Pedro maite, Altzola ortan  
zuk pozik ospa zenduna,  
berrogei eta amazapi urte  
bete zenitun eguna!  
Amonatxo bat bertan aurkitu,  
zu ainbat maite zaituna,  
zein aundia zan besarkatzea  
zeure amandre kutuna!

4 Aiako alkate jauna an zan,  
ta beste jaun bat alduna,  
Altzolan sortutako alaba  
bere emaztea duna.  
Jaialdiaren zuzendaritzan  
genduen Txueka jauna,  
berari esker igaro gendun  
berdingabeko eguna.

5 Kirol da bertso genduan plazan  
meza bukatu orduan,  
eta ondoren bazkaldutzera  
esanda zegon moduan.  
Berreun da ogei jaletik gora,  
ta gero, bazkalonduan,  
trikiti eta bertsoarekin  
bapo igaro genduan.

# Benito Lertxundiren gorantzan

(1992)

1 Abuztuan zortzian  
ta Aiako plazan,  
Benito Lertxundiren  
kanta-aldi bat zan.  
Abesti ederrikan  
gau orretan bazan,  
arrats goxoagorik  
iñoiz eztet jasan.

2 Benito asi zanean  
ain goxo kantatzen,  
jendea jarri zuan  
eztia bazkatzen.  
Nere biotza berriz  
zorion dastatzen,  
zeruan ez nengonik  
ez nuan pentsatzen.

3 Lau aizetara auxen  
nai nuke otsegin,  
goratzarre antzeko  
zerbait izan dedin.  
Benito, zuri omen  
nai nizuke egin,  
eta zeure taldeko  
laguneri berdin.

4 Alkar lotutzen gaitu  
abizen Lertxundik,  
gure adarrak datoz  
zugaitz orrengandik.  
Naiz-ta zerbait nastua  
dadukagun lendik,  
odol-zati berdiña  
badegu oraindik.

5 Oroitzea legezko  
zu Aiako erriz,  
nola bertako zerbait  
badezun jatorriz.  
Benito, gaudelako  
geiagon egarriz,  
danok galdezka gaude  
noiz zatozen berriz.

# Zarautzen bildu giñan

(1992)

---

- 1 Donostiako *Aldanondo* zan  
gure biltoki aseran,  
ta Arantzazun jarraitu gero  
Donostin asi zan eran.  
Etenaldi bat egin ondoren  
aurten nola bildu geran,  
Zarauzko *Salegi* jatetxean  
Santu Guztien bezperan.
  
- 2 Esan bezela, egun orretan  
bildu giñan gu lenguan,  
larre gozoa zan guretzako  
artzai zarraren onduan.  
Ipui ta bertso, danetik gero  
sortu zan bazkalonduan,  
Basarri eta bere lagunak  
bapo igaro genduan.
  
- 3 Billera ortan euskera izan zan  
guztion jaun eta jabe,  
bera genduan gure gidari,  
bera zan gure zutabe.  
Nere biotza etzan gertatu  
iñoiz bezin doakabe,  
etxera itzuli nintzalako  
erderarik entzun gabe.

4 Euskera garbi ta jatorrean  
gu mintzatzen giñalako,  
Ama Euskera gure artean  
gozatu genduan bapo.  
Ta esan zigun: “Nik ixuri det  
makiña bat negar-malko,  
neuk azitako seme askotxok  
baztertutzen nautelako”.

5 Eta azkenik, besarkatuaz,  
jardun zitzaigun esaten:  
“Ama xar onek olako egunak  
eztitu sarri izaten”.  
Agur egiñaz, kontseju auxe  
saiatua zan ematen:  
“Urrengo urtean seme geiago  
ia bildutzen zeraten!”.

# Peñagarikano txapeldunari

(1992)

1 Igaro dana galdu  
ez dedin biarko,  
badago jasotzeko  
kontua pranko.  
Urte zarrez, oraindik  
oroitzen naiz bapo,  
bertso-giro aparta  
izan gendulako:  
txapel bat zalako  
sortu ainbat kako;  
len zegona plako  
gizendu dalako,  
bere bizitzaz zerbait  
jarri bearko.

2 Agur bat bidaliaz  
lagun zar Peñari,  
asitzera nijoa  
kontu kontari;  
ik gaindituak dituk  
ainbat bertsolari,  
txapela jantzia dek  
lan onaren sari.  
Kartzela-gaian i,  
aizak, Anjel Mari,  
erorren amari  
geitxo intzan ari;  
errespeto geiago  
izan berari.



3 Albizturren jaio ta  
Anoetan bizi,  
eta oso gazterik  
bertsotan asi;  
gaztetxoen txapela  
beti berak kasi,  
orain Gipuzkoako  
ori irabazi.  
Beste danak autsi,  
au orain nagusi,  
ik goiari eutsi,  
zapaltzen ez utzi;  
urrengo Euskadiko  
txapela jantzi.

4 Igaroko ituan  
zenbait atsekabe,  
txapelketak orixe  
baidik zutabe:  
batzutan otz-ikara,  
bestetan su-labe,  
beti ezin ibili  
goxo ta suabe.  
Orain bare-bare,  
txapelaren jabe,  
aundiñaren pare,  
ez aiz doakabe;  
txapeldun izan baiña  
arrotu gabe.

5 Lan ona egin uan  
asi eta buka,  
agirian egiña  
ezin da uka.  
Jende dana txaloka  
“Ori dek!” oiuka,  
eskertzekoa baita  
alako burruka.  
An kukurrukuka,  
ez buru-makurka,  
egiñaren truka  
sari ori dauka,  
txapela jantzi baidu  
onenen aurka.

6 Peña lenen irutan,  
asko ezezkuan,  
baiña uste bezela  
gauzak ez juan.  
Txapela jantzia dek  
era legezkuan,  
bertsolari gorena  
i aiz Gipuzkuan.  
Naiz izan justuan,  
lortu apustuan,  
sari bat eskuan,  
txapela kaskuan;  
orrela jarraitu zak  
urte askuan.

# Zer giro kaxkarrak!

(1993)

- 1 Udara ontako eguraldiak  
garairako eztira gai,  
odei asko ta trumoia sarri,  
ori jendeak eztu nai.  
Itxas-ertzeko jolas goxoak  
giro oiekin dute jai,  
kaletarrentzat txarra da eta  
baserrirako ere bai.
  
- 2 Garia izan zan garai batean  
baserritarren zutabe,  
bere bitartez egiten ziran  
ogi zuriaren jabe.  
Gaur ortatikan bear bagendu  
gu giñake doakabe,  
sarritan geldi gindezkelako  
garirikan eldu gabe.
  
- 3 Maiatza maiatz, eta ekaiña,  
biak ziran naiko ñaiño,  
uztailla ere bien berdintsu  
aurretik azkeneraiño.  
Ogei gradutik beera geienak,  
beti goibel eta laiño,  
exkaxagorik izan ote da  
aurtengo udara baiño?

4 Aspaldi ontan badu botea  
amaika euri-zaparra,  
eguzkiaren begitan berriz  
beti badago makarra.  
Nere eskaria irukoitza da,  
eztet egingo bakarra:  
etorri bitez zeru urdiña,  
eguzkia ta iparra.

# Dentista astakirtena

(1993)

1 Ardura gutxi artu  
ortz eta agiñez,  
orren eragiñez  
gazterik asi nintzan  
agiñeko miñez.  
Atera edo konpondu  
zer egin jakiñ ez,  
dendistari esan nion  
erregu egiñez:  
“Nolabait miña kendu  
zaidazu gutxiñez”.

2 Lenengo tenazakin  
kas-kas zidan jo ta  
agiñaren kontra,  
ondoren iritzi au  
berak zidan bota:  
“Zure naia egiteko  
ni gaur prest nago ta,  
konpontzeko geiegi  
ezin leike konta,  
ateratzea obe  
ustela dago ta”.

3 Ni ere baikor jarri  
beraren planuan,  
ain era sanuan;  
gerokoaren berri  
ez jakin orduan.  
Denbora jun da gero  
ni jarri damuan,  
nere buruai nion:  
“Garaia len uan!  
Ez nintzan etorriko  
au jakin banuan”.

4 Une ura geroztik  
oroitzen det maiz ta,  
sentikorra naiz ta;  
arek egindakoa  
sinistutzen gaitz-ta.  
Anestesia jartzen  
etzan, ez, artista,  
kendu zidan zentzua,  
baita ere bista;  
asto zar batentzako  
ura zan dentista!

5 Jarri nintzan garaian  
zentzuaren jabe,  
nion doakabe:  
“Agiña azkar kentzen  
badidazu obe”.  
Dentistak esan zidan,  
ta naiko suabe:  
“Lo-belarraren indar  
danak junda daude;  
ezin dizut atera  
berriz jarri gabe”.

6 Aurretik zetorkion  
majadero kasta,  
ortan arrakasta;  
zenbat irauten nuan  
ark nai zuan dasta.  
Berriz asi zanean  
*sasta* eta *sasta*,  
pentsa nuen: "Ni bertan  
iltzeko kapaz-ta".  
Azkenean neronek  
esan nion: "Basta!".

7 Aren itxura eta  
aren alegiña,  
etzekien baiña,  
*driki-draka* saio bat  
bazidan egiña:  
bi ezpaiñak puskatu,  
baita ere mingaiña,  
azkenean atera  
kontrako agiña;  
gerokoan ondoan  
lena etzan miña.

8 Bi egun luze miñez  
egin zitzaizkiten,  
ta ez aldegiten;  
dendistari eraso  
protesta egiten.  
Esan zidan: "Erreza  
da or utsegiten,  
agin txarra zein dagon  
ez baita jakiten".  
Dentista etzan ura,  
baizik astakirten.

9 Presta zan agin txarra  
kendutzeko asmoz.  
neretzako zer poz!  
Ondoren ase nintzan  
oiñazez ta malkoz.  
Ta eman zidan miñez  
egin nuen saltoz,  
toki sagraduetan  
jo nuen ostikoz;  
bertan garbitu banu  
obea zan askoz.

10 Atera-azi zidan  
amaika antsi ta  
ni antxe etsita;  
batere etzekila  
nago iritzita.  
Agin ona atera  
ustela utzita,  
urrengoan beste bat  
alboan autsita;  
obe arek mandazai  
abarkak jantzita!

11 Aren tenaz-astintze,  
aren maillu otsa,  
dana errerotza;  
agin ateratzea  
etzan izan motza.  
Eta zerbait puskatu  
zidan beste ortza,  
sartua dit betiko  
ikarazko otza;  
dendista jarduteko  
bear zuan lotsa!



12 Nere aoan etzan  
ibili suabe,  
puskatu goi ta be;  
ni utzia ninduen  
naiko doakabe.  
Ikusi ez banuen  
neuretzako obe;  
izan ez banintz nere  
buruaren jabe,  
utziko ninduen ortz  
eta agin gabe.

# Nekez, baiña seguru!

(1993)

- 1 Nik ezin esan garai onean  
konturatu naizenikan,  
naiz ta neregan etzaidan palta  
borondate onenikan.  
Zoriondutzen zaitut, Basarri,  
berandu xamar benikan,  
bere garaian oroitu eza  
eztaukat beste penikan.
- 2 Zuregan martxan ortxe dijoa  
larogei urteko trenna,  
makiña batek bizi-katea  
badu lenago etena.  
Marka aundi bat jartzera nonbait  
zaude bidaiari irtena,  
zuk zoriontsu jarrai zazula,  
au da eskatzen detena.
- 3 Egunkaria zure zatiak  
eztu, ez, gutxi edertzen,  
ni beintzat penaz gelditutzen naiz  
ori ezpada agertzen.  
Gustoko gauza maitatutzen da,  
iñortxo ezta aspertzen,  
saiatu nai det danen partetik  
zure lan ori eskertzen.

4 *La Voz de España*-n berri-emale  
nik ezagutu zindutan,  
ortikan pentsa nik zenbat berri  
zugandik jakin ditutan.  
Gaur *Diario*-n idazten dezu,  
eta astean irutan,  
zuk dadukazun borondatea  
ezta ordaintzen dirutan!

5 Gure bizitzak berekin ditu  
alde ona eta txarra,  
bolaratxo bat parrezka eta  
berealaxe negarra.  
Kristau bezela alkarren alde  
daukagu eska bearra,  
izan dezagun neke guztiak  
eramateko indarra.

# Agur, Urtezar!

(1993)

---

- 1 Urte bat geio jua zaigula-ta ez gaitezela arritu, ola gaingitzen degun artean badegu naiko meritu. Bere bidaian gauza garratzak utziak askotxo ditu, baiñan alare agurtu gabe ezin gindezke gelditu.
- 2 Munduan toki askotatikan dator negar-garraxia, an gerra eta or istripua, gaiñera langabezia. Gorroto txarrak zapaldu digu maitasunaren esia, ori ote da urte zar orrek utzi digun erentzia?
- 3 Iragarpenak beltzak dauzkagu datorkigun urterako: diruak aitzen eta gaiñera aukerik ez lanerako. Gutxienean gertatu bedi jun danaren tankerako, ta ematen dan pauso bakoitza izan bedi onerako.

4 Ondamendiko leize-zulora  
goazela ematen du,  
zatiketaren zurrinbillotik  
ezin inola alden du.  
Nastuta dagon gizarte ori  
orrela ezin zuzendu,  
laister konpondu liteke dana  
alkar artuko bagendu.

5 Urte berri au etorri bedi  
emaitzez ugariago,  
estu daudenak aurrerantzean  
bizitzeko lasaiago.  
Zeruko Aita, ori guzia  
zuri eskatuaz nago,  
eta gaiñera gutxienean  
beste urte bat geiago.

# Arkibidea

---

Itzaurrea .....	7
Ezbearren urtea .....	11
Ordaiñetan .....	13
Elurteko eizeta .....	15
Elurtea .....	20
Zer da itxasoa? .....	23
Joxe Mari Azkarateri .....	26
Arrantzaleak .....	30
Zarautzko billera .....	32
Agur, On Manuel .....	34
Basarriren omenez .....	36
Jaiotetxetik nagusiak bialdu nau .....	39
Zozo-kabia .....	42
Guardizibillen igesi .....	48
Loiolako erri-Irratia .....	52
Arantzazuko billera .....	55
Amets bat .....	57
Joxe Aierbe lagunari .....	62
Joxe Aierberi, berriz ere .....	64
Izkuntza gaixoa .....	66
Zozomikoteak .....	68
Bekaizkeri eta zurkeria .....	70


Agur, Lurdes maitea! .....	73
Diru-jaleak ( <i>Tragaperras</i> ) .....	75
Munduko legea .....	78
Alargunaren negarra .....	82
Gau-txorien pesta .....	86
Lotoa amets .....	89
Zarautzko erriari .....	92
Azariari .....	95
Gari garbitzeko tornuari .....	99
Bizitzako legea .....	101
Agur, Urtezar! .....	105
Aiako Azentzio-peria .....	107
Pelota-Txapelketa .....	110
Baratzako satorrari .....	113
Oporlariak .....	118
Erreumak ondatu nau .....	121
Sorterri maitea .....	124
San Donato Jaiak .....	127
Zoragarri .....	129
Elormendiren ateraldiak .....	131
Nere diruarekin ezin agindu .....	134
Loidisaletxeren oroimenez .....	138
Praktikante zarrari .....	142
Marino Lejarreta .....	146
Mendi baserriko ardi-txakurrari .....	148
Atzerriko oporrak .....	152
Luis Arrillagari omenaldia .....	156
Erreizta baserriko idiak .....	158
Joxe eta Agustiñen gaiztakeriak .....	160
Gerraren igesi .....	164

San Miel kantak .....	169
Elordi basarriko ondakiñen oroipenez .....	171
Zuloko larritasunak .....	176
Gerra ondoko urteak .....	181
Loiolako Inazio Santuaren bizitza .....	185
Erretorea eta sankristauba .....	203
On Jesus Gaztañagaren oroimenez .....	209
Askatasun-egarria .....	212
Pakearen aldeko gurutz-bidea .....	215
Zorioneko udaberria .....	217
Altzolako billera .....	219
Benito Lertxundiren gorantzan .....	221
Zarautzen bildu giñan .....	223
Peñagarikano txapeldunari .....	225
Zer giro kaxkarrak! .....	228
Dentista astakirtena .....	230
Nekez, baiña seguru! .....	235
Agur, Urtezar! .....	237
Arkibidea .....	239





1051055  
G-128/78



## Joxe Mari Lertxundi

Aiako Jose Mari Lertxundi bertsolari eta bertso-jartzaille saiatuak bertso-liburu mamitsu bat eskeiñi zigun 1983 urtean: *Baso-tarteko oiua*. Urrena, 1991-n, *Igaroari begira* izeneko prosa-liburua zuan.

Gaur, berriz, beste bertso-liburu bat dakarkigu, Euskal-Erriari eta bai atzerriari ere dagozkien gaienez ornitua.

Orixe da, izan ere, bertsolari jator baten egitekoa: emengo eta edonungo gertakizunei buruz bere sorterriak zer irizten dion adierazi, bera, esate baterako, erri orren ao eta mingaiña bihurturik.

Ala, Lertxundik gai asko eta oso ezberdiñak erabiltzen baditu ere, danak sustrai bate-tik datozenak dira: *Sorlekuaren kezka*-tik alegia, eta ortik liburuaren izenburua.

ISBN 84-83846-90-7



9 788485 846900